

...eta **kitto!**

700 zkia. 2009-XI-27

ASTEKARIA

TOKIKOM

SANANDRESAK

**Baserri mundura
gerturatzeko**



HORMAN
ERAIKUNTZAK

www.horman.es

San Juan, 11 - bis. Eibar
Tel.: 943.820407 - Faxa: 943.820724

erreformak - proiektuak - etxebizitzak - fatxadak - teilatua





Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

 **bista eder**
clínica dental · hortz klinika

**Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak**

Bista Eder Hortz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Isasi 20 - behea
eibarbus@eibarbus.com
www.eibarbus.com

Bulegoa: 943 20 17 33
Garajea: 943 17 34 99
Mobila: 629 48 15 92
Faxa: 943 70 16 20

- Bertoko eta nazioarteko BIDAIAK
- Enpresa eta eskola GARRAIOAK
- TXANGOAK

Eiobarbus
autobusak



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILEA:

...eta kito! Euskara Elkarteak
HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kito!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kito!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

EZTANBEDAR.- Egurrari zuluak garbitzeko erabiltzen dan erramintza zorrotza. Formoia. " Ekarrirak eztanbedarra, honi egurronei puntia lautu eta zuluak egiteko" .

EZTIBITSETAN.- Oso pozik, inongo ardura barik. " Eztibitsetan dabil zuek hamendik zaran artian" .

EZTIMIÑETAN.- Gozaro, gozoki. " Ezkondu danetik eztimiñetan dago" .

ESKUTITZAK

HILAREN 13-KO BANAKETA

Arrateballe Bizirik taldeak aurrera jarraitzen du Arrateballe txikiziotik babesteko bere kanpainarekin. Horregatik, San Andres egunean mahaia jarriko du Untzagan, bere ekimenaren alde sinadurak biltzeko.

Bestalde, hitzaldi bilera antolatu du Portalean abenduaren 16an, arratsaldeko 19.00etan, bere jardura eta proposamenen berri eman eta horren inguruan ausnarketa egiteko.

Errebal eta Txontako gaiekin eta gure Udalaren hirigintza politika negargarri honekin ados ez dauden hiritar guztiei dei berezia egiten diegu bertara azaldu daitezen.

ARRATEBALLE BIZIRIK

NON SARTU DIRA GIZONAK?

Azkenean iritsi da denok espero genuen eguna! Eibarko " Korte Ingles " berriaren atea zabalduko ditugu! Fantasmaz beteriko bide ilun bezain okerra izan da hain desiratutako plastikozko tenplu erraldoi honen eraikuntza. Izan ere, ez da nahikoa izan milaka-miloi euro xahutzea. Eibar herria ere gure proiektu asegaitez honetara egokitu dugu, hala nola, errepide nagusia gure nahietara moldatuz, eta inoiz herriarren beharretara.

Orain, egunerokotasunean bizi dituzuen momentu itogarriak ahaztu ahal izango dituzue. Gure " etxera " etortzea besterik ez duzue eta behar ez dituzuen produktuak kontsumitzen dituzuen bitartean dena ahaztuko duzue.

KORTE INGLESAREN AURKAKO TALDEA

700 ALE ETA 21 URTE

...eta kito!-ko astekariaren 700. alea da eskuarteran duzun hau. Zenbakia berezia izanda ere, ale honetan ez duzu ezer berezirik aurkituko horren inguruan, iaz ere sasoi honetan ospatu bainuenen 20. urteurrena, diseinu aldatetarekin batera. Dena dela, aukeraz baliatuz, eskertu nahi dizugu, irakurle, orain arte jarraitu gaituzulako: hori delako gure ahaleginaren fruiturik emankorra. Eskerrik asko.

ERREDAKZIOA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Onargarria da pertsona batek zilegi jotzea bortizkeriaren erabilera, gero bortizkeria erabiltzen ez badu. Pentsa dezaket monarkia likidatu beharko litzatekeela, jabeago pribatua lapurreta dela, eduki nezake teoria bat emakumeak adimenez urriak direla... Nire pentsamenduk astakeria ankerrenak izan daitezke, baina ez delitu."

(Joxe Azurmendi, filosofoa)

"Afrikako beltzek ez dute konplexurik euskeraz kantatzeko. Hemen, ordea, gure hizkuntza ez dabilen edozein musikariri euskeraz abesteko esan eta ezin duela esango diit, ez dela ausartzen. Han berdin zaie, abesten hasten dira eta amaitu da arazoa. Bajista bera ere berak egindako bajo batekin etorri zitzaidan lehenengo entsegura"


(Gari, abeslaria)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

**UDALTZAINGOA
ETA PUNTUAK**

Orain arte Udaltzaingoak zigortutakoetan isuna ipini arren, ez zuten hutsegitearen inguruko espedienterik Trafiko Zuzendaritzara tramitatzen eta, beraz, gidariari ez zioten baimenetik punturik kentzen. Hala ere, aste honetan bertan hasita, gaur oso bestelakoak izango dira eta honez gero 30 bat gidariren espedienteak bidali dituzte Trafikora, dagozkien puntuak kentzeko. Kasu gehienetan telefonoz berbetan joateagatik edo segurtasun-uhala ez ipintzeagatik zigortu dituzte (3 puntu galduko dituzte) eta alkoholemiako proban positibo eman dutenei, berriz, 4 edo 6 puntu kenduko dizkiete.

**SALTZAILEENTZAKO
BAIMENAK**

Zerbitzu saileko arduradunak aditzera eman duenez, Untzaga inguruan zein Urkizun eguaztenetan merkadilloan postua dutenek lizentziak berritzu beharko dituzte eta horretarako azken eguna abenduaren 9a izango da. Bete beharreko inprimakia Pegora Herriarren Zerbitzurako Bulegoan eskuratzeko moduan dago.

**Sindikatuaren proposamenak
eredu ekonomiko
eta sozial berrirako**

LAB, ESK ETA ELA SINDIKATUETAKO ORDEZKARIEK 'HAMAR URRATS EREDU BERRI BATERAKO' KANPAINA aurkeztu zuten martitzenean. Maiatzaren 21eko greba orokorraz geroztik krisiaren ondorioak larriagotu egin direla aipatu zuten eta, beraz, milaka langile egoera larrian bizi direla. Horren aurrean, indarrean dauden politikak aldatzea aldarrikatzen dute eta 10 proposamen egin dituzte. Hauek dira sindikatuak eskatzen dituzten neurriak: enpleguei eutsi eta enpleguaren kalitatea hobetzea; lan-baldintzetan berdintasuna bermatzea diskriminaziorik egon ez dadin; prestazio sozialak ugaltzea; zerga politika bidezkoa eta progresiboa, aberastasuna justuki banatzeko; osasun eta hezkuntza gastu publikoak igotzea; hainbat eskubide legez bermatzea; sektore publikoa bultzatzea; askatasun sindikala bermatzea; politika ekonomiko eta sozialaren diseinuan parte hartzea sustatzea; eta Lan Harre-



Krisiaren kontrako hamar proposamen egin dituzte sindikatuak.
/ EKHI BELAR

manerarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua bultzatzea.

Sinadurak Eibarren

Urriaren amaieratik hamar proposamen hauei atxikipena erakusteko paperak lantegietan daude, baina kanpaina kalera atera nahi dute sindikatuak, "gizarte osora zabaltzeko". Horrela, astelehenean San Andres azokan sinadurak jasoko dituzte egun osoan zehar eta, bestetik, www.sinatudekalogoia.info-n ere sinatu ahal izango da.

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako jardunaldiak

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA IZAN ZEN AZAROAREN 25-A, EGUAZTENA, eta horren ganean hainbat ekintza antolatu dira herrian. Bihar, adibidez, II. Jabetze Eskolaren Jardunaldiak egingo dira 'Emakumeen indarkeriaren aurrean zer?' izenburupean Portalean.

Norma Vazquez eta Miren Ortubai izango dira hizlariak eta bertan parte-hartzeko Andretxearekin kontaktuan jarri behar da (943700828).

Jardunaldiekin hasteko 'Emakumeenganako indarkeria: azalpenak' izenpean mahaingurua egingo da 10.00etatik 11.30etara. Orduan, Vazquez

eta Ortubai hizlariak honako galderak egingo dituzte: "Zer esan nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria esan nahi dugunean?" eta "Babes-integrala ala babes-penala genero indarkeriaren aurrean?". Mahainguruaren ostean, 12.00etatik 13.00etara, honako taletarrak egingo dira: autodefentsa, indarkeriaren aurkako herri plataformak, tratu onak eta klownklusioak.

Emakumeen autodefentsa ikastaroa


Gaur amaitzen da, bestetik, emakumeen autodefentsa ikastaroan izena emateko epea. Ipuruia kiroldegian egingo da hau 19an 09.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 20.00etara.

Egunkariaren aldeko argazkia bihar

BIHAR, AZAROAREN 28-AN, EGUNKARIAREN ALDEKO EIBARKO HERRI PLATAFORMAK DEITUTA, EGUNKARIAREN ALDEKO TALDE ARGAZKIA aterako da Untzagan, harmailetan, 13.05etan. Abenduaren 14an Espainiako Auzitegi Nazionalak Egunkaria auziko sumario nagusiaren inguruko epaiketari ekingo dio eta, horregatik, beste herri batzuetan egin bezala, Eibarren ere auzipetuei babesa erakutsi eta auzia bera salatzeko asmoarekin, ahalik eta herriar gehien batu nahi da gradetan, argazkia ateratzeko. Bestalde,

Bilbon Egunkariaren aldeko manifestazioa egingo da (eguna zehazteke dago) eta Eibartik bertara joateko autobusak antolatuko dira. Eta diruz lagundu nahi duenarentzat, berriz, banku zein aurrezki kutxetan 'Egunkaria-epaiketa' izenarekin kontu korrontekak zabaldu dituzte eta, nahi izanez gero, 10 euroko bonoak ...eta kitto! Euskara Elkartean eros daitetze (Urkizu, 11 solairuartera).





Solidaritate kanpainak

EIBAR-ERMUKO GURUTZE GORRIKO GAZTE SAILAK DIRUZ LARRI DABILTZAN FAMILIETAKO UMEENTZAT JOSTAILUAK JASOTZEKO KANPAINA ANTOLATU DU.

Herritarrei dei egiten diete etxean erabili barik dituzten jostailuak Gurutze Gorriara eraman ditzaten. Ez dituzte onartuko izaera belikoa duten jostailuak, ezta hondatuta daudenak edo piezak faltan dituztenak. Jostailuak autopista al-

dameneko egoitzara eraman behar dira, 10.00ak eta 14.00ak bitartean. Abenduaren 18ra arte jasoko dituzte. Bestalde, Afrikara oinetakoak bidaltzeko kanpaina ipini du martxan Kiwi etxeak. 2006an egin-dako kanpainari esker 100.000 oinetako pare banatzea lortu zuten eta, horrekin animatuta, orain ere oinetakoak jasotzen dihardute 'Shoes aid for Africa' kanpainan. Oinetakoak El Corte Inglés-en jasotzen dituzte.



Armagintzari eskainitako atalari industriari eskainitakoa gehitu diote aurten.


4.000 bisita Museoa

URTEA AMAITZEKO HILABETE BI FALTA BADIRA ERE, PORTALEKO AZKEN PISUAN DAGOEN ARMAGINTZAREN MUSEO-AK iaz jaso zituen bisitak ia bikoiztu ditu. Gorakada hori azaltzen duten arrazoen artean, Eibarko Industriari eskainitako zatiaren inaugurazioa aipatu behar da. Museoaren eskaintza asko hobetzeaz gain, aurten zabalduko Museoaren bigarren zati hori ezagutzera emateko ahalegin berezia egin zuten arduradunek eta, eurek emandako datuen arabera, "maiatzean bertan, ate irekien jardunaldiak antolatu ziren hilabetean, 2.300 lagun baino gehiago hartu zituen Museoak. Benetan adierazgarria da, beraz, ekimenak izandako arrakasta". Gainera, eta datu horietatik abiatuta, 2010ean bisitaldi kopuruak gora egiten jarraitzea aurreikusten dute.

anzorik anzo

Saihesbidearen 3. faseko beharrak hasi dira

Aurreko barixakuan hasi ziren modu ofizialean saihesbidearen 3. faseko beharrak, agintariek zuzendutako ekitaldian lehenengo harria ipintzean. Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusia, José Luis Bilbao Bizkaiko Ahaldu Nagusia, lurralde bietako Azpiegitura eta Herrilan sailburuak eta Eibar, Ermua eta Zaldibarreko alkateak batu zituen ekitaldian Eibarko saihesbidea biribiltzeko falta den zatiaren inguruko daturik garrantzitsuenak eman zituzten ezagutzera: kilometro biko luzee-ra izango duen errepidea egiteko 41 milioi euroko aurrekontua dago eta 25 hilabetetan amaituta egotea dago aurreikusita. Trazatua saihesbidearen 2. fasearen lotunean hasiko da, Arrajolako tunelaren mendebaldeko ahoan. Hor Arrajolako lotune erdia egingo da, errepide enborearen azpian pasabidea izango du eta Legarre-Gainetik 82 metro luze izango duen zubia. Lotune erdiari esker mugimendu bi egiteko aukera izango da, saihesbidearen aurreko zatietatik (1. eta 2. faseak) Eibarren sartzeko eta ateratzeko. Amañan 19 metro luze izango duen zubia egingo da, 'T' itxurako bidegurutzera ere, auzoan sartu ahal izateko eta baita azpiko pasabide bat. Aurrerago, Amañako tunela (245 metro luze) eta Katillukoa (185 metro luze) egingo dute eta bien artean 70 metroko tartea izango da.




eibar kalea

Bidebarrieta

San Andres eliza inguruan hasi eta Urkizuraino doan kaleak herriaren bizkarrezurra osatzen duela esan daiteke eta mendeetan jatorrizko izenari eutsi dio. Kaleak eman dituen seme ezagunen artean Karlos Elgezua eskulturagilea aipatu behar da, 1898ko azaroaren 3an 'Pedro Martingua' izenez ezaguna zen etxean jaioa, Arikitzaneko zubi aldamenean.

Pegora kopurua: 47. Erroldatutakoak: 955.



asteko
18.000
datua

euro banatzen dihardu hilero Cáritas-ek Debabarrenean, laguntzaren premian dauden 60-70 familiaren artean. laz banatutako laguntzekin alderatuz gero, %15eko gorakada egongo da urtearen amaieran, azken hilabeteotako martxa horri eutsiz gero.


Lurzorua berreskuratzearen inguruko erreakzioak

ALKATEAK EGINDAKO ADIERAPENEN HARIRA, ERREBAL PLATAFORMAKO EK IDATZIA EGIN DUTE, horren inguruko iritzia azaltzeko. Lurzorua berreskuratzea izana "pozez" ikusten dute, baina hipotekatik behin-betiko libre geratzen dela konfirmatu arte "tentuz" ospatuko dute berria. Horrez gain, zabaldu berri den El Corte Inglés-ak herriaren goiko eta beheko aldearen arteko desoreka "areagotu" egingo duela pentsatzen dute. Etorkizunean Errebalen egingo denaren inguruko adostasun

ASTELEHEN GOIZEAN EGINDAKO AGERRALDIAN, MIGUEL DE LOS TOYOS ALKATEAK, Arcadio Benítez, Mertxe Garate eta Eva Juez zinegotziek lagunduta, Errebalgo lurzorua berreskuratzekeo negoziaketan berri eman zuten. Aurreko barixakuan SPV Eibar Boulevard taldeak idatziz adierazitakoaren arabera, "Eibarrren merkataritza proiektua garatzeko Udalarekin genuen lurzoruaren salmenta-kontratua bertan behera lagatzeko" asmoa azaldu du enpresa sustatzaileak.

1.138.133 eurotan

Alkatearen berbetan "alde biantzat ona den hitzarmenari esker" laster Errebalgo lurzorua erosteko moduan izango da Udala, 1.138.133,10 euro ordainduta (BEZ gehitu behar zaio horri). Eibar Boulevard-ek Udalarari lurra erosi zionean 650.000 euro ordaindu zituen dirutan eta ordaindu beharreko gainontzeko kopurua (4 milioi eurotaraino) eraikitzeokoak ziren garajeekin ordaintzea zegoen aurreikusita. Hala ere, De los Toyos-en arabera, "kontuan hartzen badugu Boulevard-ekoek guk edozein modutan egin beharko genituzkeen



EAJ, PSE-EE eta Hamaikabateko ordezkariak asteleheneko agerraldian. / SILBIA HERNANDEZ

hainbat lan aurreratu dizkigutela (eraikina eraitsi eta beste hainbat), gastu horiek eurek ordainduta, azkenean lurrarengatik ordainduta duguna eta eurek gastatu dutenaren artean ez da ia alderik izango". Bestalde, eraikitzeokoak ziren garajeetan interesa zuten hainbat lagunek 1.000 euro aurreratu zituzten eta diru hori bueltan jasoko dutela adierazi du alkateak.

Lurra formalki Udalaren eskuetara pasatzeko tramiteek denbora beharko duten arren, lortutako hitzarmenari esker Udalak jada has ditzazke lurzorua erabili ahal izateko beharrak. Hasiera batean, hiruzpalau hilabete barru automobilak aparkatzeko moduan txu-

kuntzeko asmoa dute, baina beti ere etorkizunean erabilera komertziala emateko asmoari uko egin barik. Zentzu horretan, eta EAJ alderdiaren bitartekaritza esker, hainbat enpresarekin biltzen dihardute, Errebalen merkataritza gunea egiteko egon daitezkeen aukerak aztertzen. Gaur egungo egoera ekonomikoarengatik hori posible ez balitz, bigarren aukera bat ere aurreikusten dute: "Lehehenengo pauso batea lurrazpian lau solairu egin daitezke, parking-a eta garajeekin eta gainean merkatu plaza eta supermerkatua eraikita eta, etorkizunean, horretarako baldintzak onak direnean, horren gainean merkataritza gunea jaso liteke".

mailarik handiena lortzea helburu, "herritarren partehartzea" aldarrikatzen dute eta plataforma Hirigintza Batzorde Aholkularitik kanpo laga izanaz kexu dira. Bestalde, Eusko Alkartasunak dioenez, "ezin esan daiteke Errebalen inguruko gestioaren emaitza ona denik. Operazioaren benetako kostuak 1'1 milioi euroak askorengatik gaintu egiten du". Benetako ondorio eta eraginak "ondo ikertzea" eskatzearekin batera, "Udalbatzari ardurak exijitzeko unea" dela uste dute EAKoek.

SAL MUGICA ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

San Juan, 15
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

AKONDIA

Albaitari Zentroa

Julen Arano / M^{te} Jesus Blanco

Bittor Sarasketa, 12
943 12 74 15

Iradi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Eibarko EL Corte Inglés

Moda bizitzeko beste estilo bat



Beste estilo bat jartzeko eta azken joserkin utzagen hartzeko, bertako eta nazioarteko firma handien deneruak eta markak eskuragarriak osagai guztiak: traketak, poltsak, erlojuak, harrak eta kromatokiak... Zuretzat pertsonatutako moda-estilo bat.



EGO GAIN. 7. EIBAR

ETENGABEREN ORDUTEGIA: 10-22. EROSKETA KARTA: EFERRAKO FINANTZARETA/SALMENTA: ETERRA BIDALTZEA: BIDAI AGENTZIA: ASEGURU ZENTROA. KAFETEGIA... ETA EL CORTE INGLES EN GARANTIA: KONFORME OENATU EZIN, DIRUA ATZERA ITZULIKO DA. HITZ DORN GURDOKI: 901 122 122

www.elcorteingles.es INTERNETKO BENDA HANDIA

Telebisiñuak agresibidadia haunditzen dau?



I. BARRAGAN
64 urte
jubilaua

Neretako bai, telebisiñuak agresibidadia gehitzen dau, batez be umiengan. Halanda be, umiendako marrazki bizidun edo pelikula bortitzak baiño, begittantzen jata txarraguak dirala prentsa arrosa-ko programak: horrek bai egitten dabela kaltia!




ANTONIO SANCHEZ
68 urte
jubilaua

Baietz begittantzen jata. Ordu asko pasatzen ditue umiak telebisiño aurrian eta adin guztien-dako aproposak diran programak egon biharko lirakez. Halanda be, oldarkortasun hori gizarte osuan daguala begittantzen jata. Umien jokuak be, adibidez, gerra kontuetakuak dira sarrittan.

M^a ROSA MARTINEZ
70 urte
etxeoandria

Baietz uste dot. Oiñ ez dago lehen moduko programaziñorik. Gogoratzen dot lehen, adibidez, lotara juateko kanziño bat ipintzen zeskuela eta dana. Antxiñako programaziñua lasaixaguan. Nere loibak euskarazko telebisiñua ikusten dabe eta lasaixagua begittatzen jata. Baiña, tira!



ITZIAR LOIOLA
75 urte
etxeoandria

Bai. Sasoi batian gustatzen jatan telebisiñua, baiña oiñ oso gogorra da. Zaharrak gara eta ez dakagu seme-alaba txikirik, baiña nazkatuta nago telebisiñuarekin. Sasoa be aldatu egin da eta oiñ edozer gauza egittia libre da. Jai-xotzerako azkenengo gauzia ikasi nahi dabe gaztienak.



EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M^a FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

- 1 **Tanatorioa eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- 1 Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- 1 Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- 1 Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- 1 Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Optikak Berritu - Julian Esteberrria

Amplifon-ek, entzumen-konponbideetako munduko Ederrak, honakoa eskaintzen ditu:

- Entzumen-atorketa diot
- Probatu audifonuek duen 30 eguner
- 50%ko deskontua erosten audifono erretetikaren
- Gainera, erabilzale izanda, zure audifonoren
- atorketa diot egin eta pile pakete
- bat opartuko ditugu.

OPTIKAK BERRITU - JULIAN ESTEBERRRIA
ZUMARRA - 943 78 02 30
(Ezartu zure telefono zenbakia orain)

BEZerO GUZtiENdako San AndRes ZORiontsuak!

ALBERTO taberna
*San Andres
jai zoriontsuak!*
Juan Gisasola, 10 943 702 589

943 20 61 43
bar
aldatz
ALDATZ
taberna
*Martxa nahi
baduzu... Zatoz!
Zure zain gaude*
San Juan, 3

guridi rugby
taberna

GORA SANANDRESAK!!!

Pintxoak
Hanburesak
Konbinatuak
Bokatak
Razioak
Sandwichak
Disfrutatzera
ALBORA
SNACK BAR
ISASI,9

San Juan, 4ac
Kafo borogiak... eta musika onena
Ardoetan aukera gabela
TXURRUT
ZABALIK GOIZEKO
9.00etatik

PUB
VIVALDI
PUB

Eibarren
San Juan, 9
SAN ANDRES JAI ZORIONTSUAK

Hilbehera
taberna
EIBAR

Kili Kili
Especialitateak
Gosariak
Egunero goizeko
07.00etan

birjiñape, 1 behea
tel. 943 20 71 00
SOKOA

Errebal, 24
943 70 13 23
*Zatoz ondo
pasatzera
Sanandresetan
ere*

TEEN- AJEA



Itxi da teloia eta banatu dira **Asier Errasti** **Laburmetraia** Jaialdiko sariak. **Bartzelonak** jaso du sari nagusia eta **Alex Loraren** eskuetan erori da '(En)terrados' lanari esker. Sari guztiak, hala ere, ez dira herritik kanpo joan, izan ere, eibartar onenaren saria **Maria Formoso** gazteak lortu du 'Martin' lanari esker. "Oso pozik nago, ez nuen espero".

MARIA FORMOSO, zuzendaria:

"Istorioetan murgildu eta errealitatetzat hartzen ditut"

- **Sarritan eman gabe egonden saria da eibartar onenarena. Espero zenuen jasotzea?**

Ez nuen espero. Aurkeztea-gatik aurkeztu nuen eta beste lan batzuk ikusi ondoren esperantza guztiak galdu nituen.

- **'Martin' izeneko laburmetraia aurkeztu duzu lehiaketara. Zertaz doa?**

Martin bere semea hil ondoren etxea uzten duen gizona da. Horren ostean, Bilboko alde zaharrean olerkiak saltzen bizi da.

- **Zein izan da zure lana laburmetraiean? Den-dena zuk egin duzu?**

Taldeko lana izan da. Sei pertsonen artean denetarik egin dugu, batak besteari laguntzen eta %100a emanez dena ondo joan zedin.

- **Jasotzen duzun lehen saria da hau?**

Bai, eta oso pozik nago.

- **Beste laburmetrairik egin al duzu?**

Bai, baina ikasketetarako bakarrik; ez lehiaketetarako.

- **Eta luzemetraierako jautzia noiz?**

Hori ikusteko dago, gaur egun zinema munduan nahiko zaila da-eta. Hala eta guztiz ere, asko gustatuko litzaidake.

- **Nola ikusten duzu zuk mundua kameraren atzean?**

Kameraren atzean egonda egin dudana guztia fikzioa izan denez, esan daiteke errazago ikusten dela mundua eta bizitza. Bestalde, nahiz eta fikzioa izan, batzutan hainbeste gustatzen zait islatzen saiatzen naitzen mundu hori, istorioetan murgildu eta errealitatetzat hartzen dudala.

- **Bartzelona aldean zabilta orain. Zertan?**

Zinema eta telebistarekin zirikusia daukan master bat ikasten dihardut. Bertan laburmetrai batzuk egin ditut eta proiektu gehiago ditut etorkizunera begira.

Zezenbide, 4 Tel.943 53 00 66
www.lakett.com

Lakett
ESTETIKA
MASAJEA

**Ondo pasa
Sanandresetan!**

Gorputz eta aurpegi
tratamenduak
Opari bonoak
Kosmetika salmenta

ORDUTEGI JARRAITUA: 09.00-19.00. ZAPATUETAN: 09.00-13.00

CATALANA OCCIDENTE Aseguruak

Emilio de los Toyos - C046815351532K Aseguru Agentea

- ERANTZUKIZUN ZIBILA
- AUTOAK
- BIZITZA ETA JUBILAZIOA
- OSASUN ASEGURUA
- ISTRIPU BANAKAKO
ETA KOLEKTIBOAK

- ARRISKU ANITZETARAKO:
Familia-Etxebizitza, Dendak,
Bulegoak, Eraikinak,
Jabeen erkidegoak,
Enpresa Txikiak eta Ertainak,
Pymeak, Tailerrak.

emilio.toyos@catalanaoccidente.com

Eibarko Txikito, 8 -behea Tel. 943 200 908

Giro ona nagusi Gazte Lokalen Lehiaketaren finalean

Azken asteetan hainbat txapelketa jokatu dira Eibarko lokaletan. Ping-pongean, futbolinean, musean eta Play Stationeko Sing Starrean aritu izan dira gazteak, euren abileziak erakutsiz, baina batez ere ondo pasatuz. Hala ere, denetan abilenak zeintzuk diren aurreko zapatuan erabaki zen final handian.



zak prestatu behar ziren jaialdia hasi aurretik, beraz, lan egiteko gogoarekin hurbildu ziren hara.

Ping-ponga izan zen lehen protagonista. Mahaiaren alde bietan finala jokatuko zuten protagonista biak kokatu ziren, Xabier Alberdi eta Jon Gorostiza, eta mahaiaren inguruan zaletuak ping-pong partidua ikusteko irrikitan. Lehia polita izan zen eta aurretik jokatutako neurketetan erakutsitako maila egiaztatu zuten. Xabier izan zen garailea, baina kiroltasuna izan zen nagusi.

Kirolaren ostean ondo jan beharra zegoen. Tortila eta makarroi lehiaketa antolatu zen frontoian, parte-hartzaile-

ek gero jango zuten bazkaria. Lapiko eta suaren gainean ondo moldatzen direla erakutsi zuten gazteek eta bapo jan zuten aurretik prestatutako hori.

Aizkora Beltzaren kontzertua


Bazkalostean ez zen lo kuluxka egiteko betarik izan, frontoiaren oholtza gainean Aizkora Beltza taldea entsaiatzen hasi baitzen, ondoren eskainiko zuen kontzertua prestatzen. Behin taldeak lehen akordea jo zuenean jendea eszenatokira hurbildu zen eta eibartarren musika onaz gozatu zuten.

Jai-giroa aparta zen dagoneko eta beste finalak jokatze-ko gogoarekin zegoen gazte-

dia. Mahai batean muslariak, telebista aurrean Sing Starreko abeslariak eta oholtza gainean, futbolinean, Cristiano Ronaldo, Messi eta konpainia. Garaileek txapela jaso zuten, ondo merezitakoa gainera, baina horrelako egun zoragarria pasatzearekin denak irten ziren garaile.



Goizean goiz hasi eta iluntzera arte egon ziren gazteak Armerian. Frontoia uzteko ordua heldu zenean mikrofonoa utzi, palak bere lekuan laga eta tokia garbitzeari ekin zioten gazteek. Jaiak herrian jarraitu zuen.



Ordutegia	Asteburuetan
08.00-13.30	08.30-14.45
16.30-21.00	17.00-21.00

ANTON
Delicatessen


Arragueta, 14 Tlf. 943 56 85 43

MUGIKÀ

Urkizu, 18 — 943 120194



ZINTZILIKARIOA:
10 euro



ZINTZILIKARIOA:
18 euro



ZINTZILIKARIOA:
8,20 euro



BELARRITAKOAK:
30 euro



ESKUMUTURREKOA:
7,60 euro

ZINTZILIKARIOA:
7,50 euro



ESKUMUTURREKOA:
34 euro

...eta Euskara E Gabon KATA



AHOZAPIA:
3,30 euro

AMANTALA:
20,70 euro



ARDILATXA KATILUAK:
6,90 euro

MAHAI-OIHALAK:
180x200: 48,10 euro
180x250: 60,50 euro
180x300: 70,20 euro



UMEAK:
2, 4, 6 eta 8
18 euro

NAGUSIAK:
M, L, XL
23 euro



JAIOBERRINDAKO
TOALLA:
17,60 euro



TOALLAK:
30x50: 7,30 euro
50x100: 14,50 euro
70x140: 24,20 euro
100x150: 34,80 euro






NAGUSIENDAKO
BAINU-BATA:
S, M, L, XL
67,50 euro

Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...eta kitto! Euskara E
Datorren ASTELEHENETIK aurrera, 10.00etatik 13.00etara /

IKUSI, AUKERATU eta ENKATU

kitto! Elkartearen metako KATALOGOA

DISKA, DVD, MAHAI-JOKO ETA LIBURUAK




Katalogoak dituen
irabaziak euskera
sustatzen erabiliko
ditugu




EGURREZKO
OPARIAK



ARBOLARAKO
OLENTZERO:
3,75 euro



UMEENDAKO
BAINU-BATA:
2, 4, 6, 8
44 euro



Iruñeko
KARRIKIRI
Euskara
Elkartea

Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)
16.00etatik 20.00etara
ARGUA EGIN!



ESKAINZA SOLAIRUKA**5. solairua**

Kafetegia, etxeko oihalak (oheko eta mahaiko arropa, koltxoiak, esku-oihalak) eta promozioak.

4. solairua

Etxetresna elektrikoak (bainugela eta sukaldeko dekorazioa) eta etxeko tresneria (sukaldeko eta mahaiko tresneria, opariak).

3. solairua

Kultura eta aisia (musika, zinema, liburuak, paper-gauzak, mahai-jokoak), jostailuak, bideo-jokoak, bidai-agentzia eta aseguru-zentroa.

2. solairua

Gazteen moda (nazioarteko firmak, marka eskusiboak, Sfera, gazteen arropa zuria), jantzi bakeroak (jantzi-osagarriak), kirolak (denda espezializatuak, kirol-oinetakoak, jantzi-osagarriak, kirol-materiala) eta teknologia (irudia, soinua, informatika, telefonia, Telecor, argazkiak).

1. solairua

Emakumezkoen moda (nazioarteko firmak, marka eskusiboak, neurria & moda, larruzko jantziak, haurdunaldirakoak), arropa zuria, kortseteria, oinetakoak (emakumeak, gizonak, gazteak, haurrak), haurren moda (nazioarteko firmak, marka eskusiboak, Sfera kids eta Babies), haurtxoen moda eta ekipamendua (karrozeria, bularra emateko gela, edoskitze-gela), ile-apaindegia (emakumeak eta gizonak) eta aparkalekua.

B

Jantzi-osagarriak (poltsak, larrukiak, bitxiak, erlojuak, bisuteria), gizonzkoen moda (nazioarteko firmak, marka eskusiboak, jantzi-osagarriak, neurri handiak, azpiko arropa, bidaiatzeko gauzak), lurriak eta kosmetika, 2000 Optika eta aparkalekua.

Ss

Supermerkatua (plater-prestatuak), Gourmetaren Kluba El Corte Inglés-en, parafarmazia, maskotentzako janaria (loreak eta landareak) eta aparkalekua.

S1

Bezereantzeko arreta-zerbitzua (BAZ), erosketa-karta, ezkontzen osoko zerbitzua (EOZ), arreta pertsonalizatua (AP), tindategia (oinetako konponketa, giltzen kopiak, arropa konpontzeko tailerra, kutxazain automatikoak) eta aparkalekua.

S2-3

Aparkalekua.



El Corte Inglés-ak atearak zabaldu ditu

Atzo zabaldu zituen atearak lehenengoz El Corte Inglés-ak eta, espero zen moduan, merkataritza-gune berriaren inguruan herrian zein inguruan piztutako ikusmina ez da txikia izan. Azken hilabeteotan gau eta egunez jardun dute beharrez, dena prest egoteko eta, detaile batzuk falta badira ere, martxa betean jarduteko moduan dago zentro berria. Martitzenean Isidoro Alvarez El Corte Inglés-eko presidentea Miguel de los Toyos alkateari eta beste agintariei erakutsi zizkien instalakuntzak eta eguaztenean, berriz, herriko zein kanpotik etorritako kazetarientzat aurkezpena egin zuten Diego Copado Kanpo Harremanetarako zuzendariak, Eduardo Robredo Eibarko zentroko zuzendariak eta Pablo Muñoz eraikinaren arkitektoak. Dato ugariz

hornitutako aurkezpenean, besteak beste, honakoak dira azpimarragarriak: 80 milioi eurotik gorako inbertsioa egin dute; eraikitako azalera 60.000 metro karratukoa da (dendak 20.000 metro karratu betetzen ditu); eibartarrak ez ezik, inguruko 19 udalerritako biztanle kopurua aztertuta, merkataritza-gune berriaren eragin-esparruan 165.981 biztanle daudela kalkulatu dute; 502 behargin dauzka denda berriak (%73 emakumezkoak eta batazbesteko adina 31 urtekoa da); eta 647 ibilgailuentzako aparkalekua dago (horietatik 21 elbarrizentzat); gainera, berritasun gisa, ibilgailu elektriko edo hibridoentzako lau aparkaleku prestatu dituzte. Astelehenean zapatura zabalduko ditu atearak aurrerantzean, 10.00etatik 22.00etara.



Isidoro Alvarez El Corte Inglés-eko presidentea martitzenean egon zen Eibarren agintariei denda erakusten. / EKHI BELAR

Elkarlana



 kutxa



ADEGI



gipuzkoa aurrera

Elkarlanean, ilusioak, helburuak eta proiektuak aurrera.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-privatetik elkarlanean ari gara,
indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa gurtiaren ginetik dagoelako.

Sanandresak Eibarren

azaroak 27

22:30. Gazte Bertso Jaialdixa.

Amaia Agirre, Miren Amuriza, Maddalen Arzallus, Ibai Esoain, Beñat Ugartetxea eta Jokin Uranga. San Andres Bertso Paper lehiaketako sarixen banaketia. ... eta kitto!-k antolatuta. Portalean.

23:00. Rock kontzertua:

Kilonbo, Locura Prematura eta Garrapata. Eibarko Musikari Gaztien Elkartiak antolatuta. Untzagan.

azaroak 28

09:15-22:00. "VI. Txistorraren Eguna".

Kilometro bat txistorra. Egunian zihar, kirol erakustaldixak, musika, jokuak etb. Eibarko Txirrindulari Elkartiak antolatuta. Untzagan.

20:30. Aizkora Beltza

taldiaren kontzertua. Untzagan.

23:30. Seguridad Social

taldiaren kontzertua. Club Lambrettak antolatuta. Astelenan.

azaroak 29

11:30. Bakillauaren Kofradixako XVI. Kapituluua.

Ongietorrixa kofradixeri; jarraixan, desfilea Untzagako Jubilauen Egoitzaraino.

12:00. Kupela taldiaren saiua.

Peña Txinberak antolatuta. Untzagan.

12:00. Bakaillau txapelketia.

Udalak antolatuta. Untzagan.

12:30. Ohorezko Kofradien ziñ egittia

eta Goruntz abesbatzaren saiua. Untzagako Jubilauen Egoitzan.

18:00. Herri Kirolak:

VI. San Andres lehiaketia. Aizkolarixak bikoteka. Untzagan.

19:00. Txahalki pintxuak,

San Andres Egoitzaren alde, eta Kupela taldiaren saiua. Peña Txinberak antolatuta. Untzagan.

23:00-02:00. Dantzaldixa,

Egan taldiarekin. Untzagan.

azaroak 30

09:30. XXXI. San Andres Nekazal Azokaren

epai-mahaixaren lanen hasiera eta ganadu erakusketia.

11:00. Usartza Txistulari Bandaren

kalejiria.

12:00. Plazara Dantzara

Erromerixia, Jainaga eta Narbaiza trikitilarixekin eta Kezka Dantza Taldiaren eskutik. Untzagan.

12:45. Narbaiza eta Azpillaga

bertsolarixen eta Jainaga eta Narbaiza **trikitilarixen emanaldixa.** Untzagan.

13:00. San Andres azokia, pintxo txapelketia eta kartelen sari banaketia.



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnok: 943 12 13 67 Faxe: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

Mokka
interiorismoa

BARNE DISEINUA
GREN MIGNEN KOORDINAKETA
DISEINU GRAFIKOA
PROYECTU TEKNIKOAK
CHIALAK
ALTZARIAK
PAPERAK

Beldarrizte 24, Eibar
UR 670550583


Azoka Txaltxa Zelai eta Untzaga artean banatuta

San Andres jaiaren inguruan antolatutako egitarauak hamaika ekitaldi jasotzen baditu ere, duda barik ardatza azaroaren 30eko nekazal erakusketa eta lehiaketak osatzen dute. Aurtengo azokak izango duen berritasunik handiena, beraz, postuen kokalekuarekin zerikusia dauka: Txaltxa Zelaiko lurra berritzeko beharrak jairako sasoiz amaituko zituzten ala ez, horren zain egon dira ezer erabaki aurretik, baina, azkenean, Txaltxa Zelai erabiltzeko moduan dagoela ikusita, Untzaga jubilatuko etxe gaineko parkeak eta udaletxe-ko plazak hartuko dituzte pos-

tuak. Goian, Txaltxa Zelaian, ogia eta ezta eskainiko dituzten postuak egongo dira eta gainontzeko produktuak, berriz, Untzagan. Abereak eta bestelakoak, berriz, plaza bien artean egongo dira ikusgai eta aurreko urteotan AEK euskaltegiekoek martxan izan duten talo-postua aurtan Urbatekoek zabalduko dute. Eta, jai giro-tzen, egun osoan kalejirek, bertsolariak, trikitilariak, txistulariak eta beste hainbatek jardungo dute.

1.830 euro saritan

Urteroko produktu berak aurkituko ditugu azokan, hainbat postutan banatuta: ezta (7), barazkiak (15), frutak (4), txakolina (2), ogia (19), lorak (2) eta gazta (26). Azken orduko aldaketaren bat gertatu ezean, XXXI. San Andres Azokan 75 bat postu ipiniko dituzte. Gehienok azokara etxera



eramateko produktu goxoen bila jotzen badugu ere, ez dugu ahaztu behar urtero sari garrantzitsuak banatzen direla azokan parte hartzen dutenen artean. Kalitatea, kopurua eta aurkezpena izaten ditu kontuan epaimahaiak eta, horrez gain,

aurkezpen sarien arloaren barruan produktuen barietatea aintzakotzat hartuko dutela aurreratu dute. Barazkiak, frutak, eztiak, ardi-gaztak eta ogiak dute saria eskuratzeko aukera. Produktu bakoitzeko lehenak 180 euro eskuratuko ditu eta bigarrenak 120 euro. Beste sari bi atondu dira, espositorearen aurkezpenaren inguruan (150 eta 90 euro). Eibarko baserriak onena saritzeko, berriz, 90 euroko saria dago. Azokaren aurrekontua 20.539 eurokoa da. Saritan 1.830 euro banatuko dituzte eta, gainontzekoa, musika emanaldiak, herri-frogak, abere erakusketa eta azokaren inguruko beste hainbat ordaintzeko erabiliko dute.



Talagile berriak izango dira aurtan Sanandresetan.

ITURRI
ARDOAK
ETXERA ERAMATEN DUGU
Eibarko Merkatu Plaza - Rialto
Tel. 943 12 05 87

Ugaldea poligonoa, 11. Pabillioa 20170 USURBIL

Bulego altzariak eta materiala
PAPERDENDA

Tel. 943 365892
Faxa. 943 371686
Mobila. 687 828590
fatima@manpel.com
www.manpel.com

FAMILIA ABOKATUA
ELENA MUGUERZA ORMAECHEA

Familiako eta ondorengotzetako (herentziak) abokatua

Dibortzioak
Gaitasun-erak
Ondorengotzak
Aitatasun erreklamazioak
Erregimen ekonomikoa

Juan Gisasola, 4 - 2. eskuma
691 442 424 628 537 941

Bakailaoaren erreinuan pil-pilean

Aurten hildako Angel Elizondo Bakillauaren Kofradixako sortzailearen oroimena nagusi zela, domeka eguerdian jokatu zen aurtengo bakailao txapelketen lehenengo kapitulua: eskolen arteko gazte-txoen lehiaketa. Bakillauaren Kofradixak antolatutako jardunaldian, gurasoen eta aitxita-amamen kontseiluak “*serio demonio*” jarraitu zituzten parte hartu zuten 23 bikoteek, eguerdiko 12.30etarako proba amaitu zenerako. Emaizta ere bikaina izan zen, Jorge Arregi, Pepe Neira eta Roberto Prietok osatutako epaimahaiak esan zue- nez; azken hauen iritziz, gazte bat baino gehiago prest dago helduen lehiaketan parte hartzeko. Ostegunean jaso zuten bakailaoa eta parte-hartzaileen ardura izan da gatza kendu eta lehortzearena. V. Edizio honetako irabazleei dagokienez, Itzio

ikastetxeko ordezkariak eraman zituzten sari nagusiak: Ikran eta Teresa Txurruka nagusitu ziren 14tik 16ra urte arteko mailan eta Jon García eta Mikel Vítores 12 urtetik 14ra artekoan.

Kofradixako XVI. kapitulua

Pil-pil eran joango da ere datorren domeka, goiz-goizetik hasita gainera. Ekitaldi bi batu-ko dira egun horretan, ohikoak biak ere: Bakillauaren Kofradixako ohorezko kofrade berrien izendapena eta helduen txapelketa nagusia. Miren Mandiola biologoa, Pedro Palacín musikaria eta Enrike Zuazua matematikaria izango dira aurtengo kofrade titulua jasoko duen hirukotea osatuko dutenak. Badira, bai, gure herriaren izena mundu guztira zabaldu dutenak gure artean! Kofradixaren XVI. kapitulua izango da aurtengoa: 10.30etan hasita, ongi-



Gazte-txoek izan ziren joan den domekako protagonistak. / MAIALEN BELAUSTEGI



Pintxo lehiaketan 19 taberna

Pintxo lehiaketaren edizio berria jokatu zen atzokoan, astekari hau inprentan zegoenean jada. Aurtengoa seigarren edizioa da eta, lehiaketan parte hartzeko, hemeretzi taberna ziren izena emana zutenak: Aguiñaspi, Ambigú, Anardi, Aterpe, Big Ben, Birjiñape, Bossa, Bost, Chalcha, Ego Gain, Koskor, Kultu, Montekasino, Su Beroa, Tas Tas, Terraza, Trinkete, Tupi Azpi eta Txoko. Horrelako sukaldariek, lan zaila izango du epaimahaiak pintxorik onena aukeratzeko.



etorria egingo zaie, Euskal Herri-rik aparte, Portugal, Frantzia eta Espainiako hainbat tokitik etorriko diren kofradeei; Untzagako jubilatuen etxean hamarretakoa hartuta, 11.30etan kalejiran irtengo dira eta, bueltan, berriro ere Jubilatutako Etxean, egingo da kofrade berrien izendapena. Entronizazioa eta zin egitea amaituta, Goruntz abesbatzak kantaldi berezia eskainiko du, tartean Bakillauaren Kofradixako Habanera interpretatuko baitute. Kantaldia ez da hor amaituko, jarraian Kale-

etan Kantuz abesbatzak lagunduko baitie lau tabernetako (Kultu, Leo, Koskor eta Arkupe) kalejiran. Bazkaria ere izango da, Orbe jatetxean, eta Pérez musika taldearen soinuak ondorengo dantzaldia alaituko du.

Udalak antolatutako helduen txapelketa nagusia egun berean jokatuko da, eguerdiko 12.00etan hasita, eta bertan parte hartzeko 40 bikotek eman dute izena dagoeneko. Bakailaoaren zaporeaz gozatzeko aukera paregabea domekako!

Gure Egitekoa:
Munduko
Maitasun
Guztia

SANTA MARINA Tf. 943 530 699
ASISTENCIA DOMICILIARIA Eguiretarren, 12

Ana Arostegui
ABOKATUA

- Familia
- Alokairuak
- Jabetza horizontala
- Senar-emazteak
- Herentziak

F. Calbetón, 19 - 1. ezk.
Tfnoa. eta Faxa: 943 70 12 06



INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

22. zenbakia. 2009ko azaroa

Publizitatea: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. Tel. 943 20 67 76. Faxe. 943 20 28 72

EUKI

FINKAK

 API 323

- **GESTIO INMOBILIARIOA:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren **FINANTZIAZORAKO BIDEA:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **INFORMAZIO PERTSONALIZATUA**



Toribio Etxebarria, 1 943 20 03 58 Faxe. 943 82 04 03 fincas@euki.com

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Urkizu	3 log., egong., suk., 2 kom. Ezinhobea. Altua. Garajea aukeran.	Galdetu
EIBAR	Ipurua	3 log., egong., suk. (balkoiarekin), bainug., kom. kalefak, gasa., Ganbara. Eguzkitsua. Ezinhobea. 225.000 (negoziatzeko)	
EIBAR	Juan Gisasola	3 log., egong. (balkoiarekin), suk., kom. Trasteroa. Ezinhobea. Igog. Kalefak. Galdetu	
EIBAR	Bidebarrieta/Urtzaile	2 log. (3. egiteko aukera), egong., suk., kom.	189.320 €
EIBAR	Amaña	2 log., egong., suk., kom. Altua. Eguzkitsua. Bista onak.	136.430 €
EIBAR	Errebal	Eraikin berria	210.000 €-tik aurrera
EIBAR	San Andres	Eraikin berria	228.000 €-tik aurrera
EIBAR	F. Calbeton	Eraikin berria	168.283 €-tik aurrera
EIBAR	T. Etxebarria	Eraikin berria	368.100 €-tik aurrera
EIBAR	Bidebarrieta	Eraikin berria	173.095 €-tik aurrera
EIBAR	Isasi/Ego Gain	Eraikin berria	270.460 €-tik aurrera
EIBAR	Sautsi	Eraikin berria	234.395 €-tik aurrera
EIBAR	Urki	Eraikin berria	227.784 €-tik aurrera



A.P.I.: Rosa Juaristi

**Arragueta, 2 bis B-behea
20600 EIBAR**

Tel. eta Faxa:

943 20 08 60

rosa@inmobiliariajuaristi.com

www.inmobiliariajuaristi.com

- salerosketak
- errentamenduak
- traspasoak
- balioztatzeak



...eta kitted! aldizkariaren
INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

**IBAI-ONDO.
EIBAR**

www.inmobiliariaibaiondo.com

**Bidebarrieta, 24 - behea
Tel. 943 20 12 13**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Bidebarrieta	Etxe polita. Logela bat (bi egiteko aukera). Igog., kalefak., sartzeko.	Galdetu
EIBAR	Errebal	Hainbat tamaina eta preziotako etxeak. Aukera handiak.	228.000 €-tik aurrera
EIBAR	Txaltxa Zelai	Etxe handia. 3 log., egong., suk., bi kom. Igog. Garaje itxia etxeraino.	Galdetu
EIBAR	Ubitxa	Etxe polita. 2 log., egong.-jang., suk., kom. Kanpora. Kalefak. Berriztuta.	168.283 €
EIBAR	Armagin	Eskaintza. Apartamentua. Logela, egongela-jangela-sukaldea, komuna.	66.000 €
EIBAR	Karmen	Apartamentu polita. Logela, egongela-sukaldea, komuna. Kalefak. Igog. Sartzeko.	Galdetu
EIBAR	Barrena	Hainbat etxebizitza. Trasteroa eta garajea aukeran.	Galdetu
EIBAR	W. Orbea	Bi logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Sartzeko.	174.000 €
EIBAR	Ipurua	3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Berrizteko.	130.000 €
EIBAR	J. Etxeberria	130 m ² . Etxe handia. 4 log., egong., suk., 2 kom. Igog. Eguzkitsua. Bistak. Aukera handiak	Galdetu
EIBAR	Bidebarrieta	4 log., egong., suk., kom. Igog. Pegora/eskilarak berriztuta. Eguzkitsua. Bistak. Aukera handiak.	Galdetu
EIBAR	Karmen	5 logelako etxe handia. Egongela handia, sukaldea, komun bi. Berrizteko.	Galdetu
EIBAR	Jardiñeta	2/3 logelako hainbat etxe.	Galdetu
EIBAR	Ifar kale	2 log., egong.-suk.-jang., komun handia. Altua. Igog. Ganbara.	Galdetu
EIBAR	Urkizu	3 logelako hainbat etxe. Egong.-jang., suk. Komun bi. Kalefak. Igog. Bi garajea aukeran.	Galdetu
EIBAR	T. Etxebarria	Hainbat tamaina eta preziotako etxebizitzak.	258.000 €-tik aurrera
EIBAR	Zuloagatarren	Hainbat etxebizitza handi. Aukera handiak.	Galdetu
MALLABIA		Txalet ikusgarria. 3 log., egong.-jang., estudioa., suk., komun 2., bodega. 100 m ² ko terrenoa.	Galdetu
SORALUZE	HAINBAT ETXE. TAMAINA ETA PREZIO DESBERDINAK. BATZUK ERAIKIN BERRIETAKOAK ETA BESTEAK BERRIZTEKOAK.		
DEBA/ZUMAIA	TXALETAK, ETXEAK, ETA ERAIKITZEKO BAIMENDUN TERRENOAK		
EIBAR	Urki	AZKENENGO ETXEAK. ERAIKIN BERRIA. PREZIO ONA.	
	HAINBAT TAMAINUTAKO LOKAL KOMERTZIALAK ALOKAIKIRUAN		
	GARAJEAK HAINBAT LEKUTAN		
	EIBARREN, ERMUAN ETA DEBAN ETXEAK ALOKAIKIRUAN		
	ETXE BERRIAK ELGETA ETA ALTZOLAN. PREZIO ETA TAMAINA DESBERDINAK.		
	PABILIOIAK. TAMAINA ETA PREZIO DESBERDINAK.		
	LASTER! ERREKATXUKO ERAIKIN BERRIKO LEHENENGO FASEKO ETXE GARAJE ETA LOKALAK SALMENTAN		




...eta kitto! aldizkariaren INMOBILIARIEN GEHIGARRIA


MAPFRE
ASEGURUAK

GARMENDIA
INMOBILIARIA

PISUAK ETA LOKALAK
salgai eta alokairuan

San Juan, 7 - behea Tel. 943 203 413
Faxa: 943 200 324 -EIBAR-


Salerosketak
Traspasoak
Tasazioak
Alokairuak

Errebal, 19
943 70 16 57
Faxa. 943 70 07 51


donpiso
FIDATU ZAITEZ PROFESIONALETAZ BAKARRIK

Zure etxea saltzeko
modurik azkar, errez
eta eraginkorrena

Isasi, 16an

donpiso@donpisoieibar.com
www.donpiso.com Tel: 943 82 05 10 Faxa: 943 20 81 81


ARREGI
INMOBILIARIA

Errebal, 12 - behea 20600 EIBAR
Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344
www.inmoarregi.com

Eraikitzen hasita. Azken etxebizitzak.

Soraluzen



22 ETXEBIZITZA ETA GARAJE

Soraluzen! Promozioak. Informazioa: 689 420 761 Eraikitzailea: Egaraia! www.egaraia.net



Hotza izaten da nagusi, normalean, Sanandresetan. Klima aldaketaz egiten da berba, baina azaroaren amaieran termometroetako merkurioa ez da gehiegi altxatzen. Jaiak, bestetik, kalean gozaten dira gehien bat, eta hotzari aurre egiteko zer hobe rock-aren garren artean murgiltzea baino? Sanandresetan ez da aukerarik faltako.

Rock-a nagusi Sanandresetako oholtzan

Eibarren musika biziki sentitzen da. Abesbatzak, jaialdiak, bakarlarriak, musikari ezagunak, talde hasiberriak, jaialdiak... aurki daitezke herrian, musika kaleetan, etxeetan, tabernetan eta edozein lekutan aurkitzen den seinale, baita eibartarren zainetan ere. Horren erakusgai da aurtengo Sanandresetako kartela.

Herriko lau musika talde eta bakarlari bat igoko dira Sanandresetako oholtzara. Lau rock,

punk eta metal talde, eta bestetik, DJ bat. Kilonbo, Lokura Prematura, Garrapata, Aizkora Beltza eta DJ Arno. Lehenengo txanda barixakuan iritsiko da, izan ere, Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak (AMJE) rock kontzertua antolatu du 23.00etan Untzaga plazan.

Punk-a izango da nagusi barixaku gabeen. Hiru taldeek euren indarra erakutsiko dute oholtza gainean eta herriko zaleei burua mugiaraziko die eritmo gogorrekin.



Herriko musikari gazteek euren tartea izango dute aurtengo egitarauan. Goian, Garrapata.

Seguridad Social Astelenan

Zapatuan erritmoa ez da gutxituko eta herriko talde batez gain, Espainian arrakasta handia izan duen taldea pelotaren katedralean egongo da. Seguridad Social taldea Astelena frontoian arituko da 23.30etan eta 'Comerranas' eta 'Chiquilla' bezalako abestiak entzuteko aukera egongo da. Valentziarrak 25 urte baino gehiago daramatzate musika munduan eta rocka, reggaea eta rumbalanda dute abesti mitikoak eskainiz.

Seguridad Socialen aurretik Aizkora Beltza talde eibartarra arituko da 20.30etan Untzagan. Gazte hauek beste taldeen bertsioak modu bikainean lantzen dituzte eta euren toke pertsonala ematen die lanei. Arrateko jaietan aritu ziren zela jendetsuaren aurrean eta joan den asteburuan ...eta kitto!-k antolatutako Gazte Lokalen Txapelketaren finalean

izan ziren bertan bildutakoen gozamenerako.

Trikitixa bi egunetan

Gitarren soinuak trikitixari emango dio txanda domekan. San Andres bezperan goizetik murgildu ahal izango da jendea jaiean, izan ere, 12.00etan kontzertua eskainiko du Kupela taldeak Untzagan Peña Txinberaren eskutik. Bazkaltzeko atsedendia laga ostean, oholtza gainera igoko da berriro Kupela 19.00etan musikaz jai-giroa ipintzeko.

Ezin amaitu, hala ere, Sanandresak talde mitiko bat jaso gabe. Eibarren sarritan arituen taldea da San Andres bezperan 23.00etatik 02.00etara Untzagan arituko dena: Egan. Ume, gazte eta nagusien artean arrakasta handia duen taldea, zalantza gabe. Hiru orduetan plaza dantzaleku bihurtuko du Eganek eta gaua giro berezi batez margotuko du.



Astelen afrontoian joko dute zapatu gabeen Seguridad Social taldekoek.

+ bide

– GIDA ETA ARMA-BAIMENAK
– ZIURTAGIRI MEDIKUAK

Arikixaneko zubia, 1 - behea (EIBAR) Tel. 943 200 501


Aldetz aurretik
txandarik hartu gabe

Janari eta edariaren inguruan antolatzen dira Euskal Herriko jai gehienak. Janari eta edariarenganako nolabaiteko gurtza dago eta Sanandresak ez dira gutxiagorako, are gehiago kontuan izanda azoka dela jai hauetako ikurra.

Txistorra kilometroa eta txahala protagonistak

San Andres eguna aurretik jan eta edanarekin zerikusia duten ekintza bi egingo dira, kirolarekin zerikusia duten herriko elkarte

antolatuta. Batetik, bihar VI. Txistorra eguna egingo da Eibarko Txirrindulari Elkartearen ekimenez. Kilometro bat txistorra banatuko da bertan, 400 kg



Txistorra kilometroa egiteko 400 kilo erabiliko dituzte. Hortik aparte, kirol erakustaldia, bigantxak eta musikak osatuko dute egun osoko egitaraua. / LEIRE ITURBE



Aurreko urteotan Sanjuanetan eginda txahal-janaren lekukoa hartu du Peña Txinberak Sanandresetan antolatutakoak. / LEIRE ITURBE

guztira, egun osoan zehar (09.15etatik 22.00etara).

Kirol erakustaldia eta joko ezberdinak egingo dira, eta eguardi aldean bigantxak izango dira protagonista. Gainera, eguna gehiago girotzeko Elgoibarko Dultzaineroak arituko dira eta baita Arno DJ-a ere. Aipatu behar da, gainera, saldu-tako txartel guztien artean zozketa egingo dela eta sari ederak banatuko direla.

Irabaziak ospitalerako

Hurrengo egunean, San Andres bezperan, Peña Txinberak hartuko du lekua. Urtean zehar

porra antolatzen dute Athleticazale hauek, eta jendearen parte-hartzea eskertzeko eurei eskainitako zerbait egin nahi zuten. Eusko Labeleko txahal pintxoak eskainiko dituzte euro batean, eta doan egiteak kaos bat suposatuko zukeenez, lortutako diru guztia San Andres ospitalari eskainiko diote.

Euro bat ordainduta pintxo hartzeko balea, nahi beste sargardo jasotzeko edalontzia eta Bilboko Athleticen egutegia jasotzeko ahal izango da. Txahala, bestetik, Carlos Ibarondok prestatuko du eta 1.200 pintxo banatuko dira guztira.

Asteartero Eibarko alkatiak HAMAIKA BERBA Irratsaloan orantzungo ditu, eguardiko 12.30etan.

Zure kezka, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: eibar@herri-irratia.com

SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua)

5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz

943 82 08 44 zenbakira.

90.7 Fm

Kalitate Turistikoaren Q-a

Euskadin honezkerok 267 establezimenduk jaso dute turismo arloko enpresen zerbitzua, instalakuntzak eta gestioa zertifikatzen duen Kalitate Turistikoaren Q-a. Berezi-garriak, klasifikazio ofizialari erreparatu gabe, enpresa turistikoetan eskusiboki eta Kalitate arau batzuen barruan aplikatzen diren produktuaren zein zerbitzuaren eskakizunak jasotzen ditu. Azken batean, bezeroen asebetetzerako eta di-tuen itxaropenen betetzerako bermea da.

Horrekin batera, exigentzia maila txikiagoa baina epe luzerako konpromisoa duen negozio txikienei bereziki zuzendutako programan, Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 274 establezimendu daude. Bereizkuntzak, formakuntza eta hobekuntzarako konpromisoa, establezimenduen kudeaketan dedikazioa eta zorrotasuna errekonozitzen ditu, kalitatearen hobekuntzarako planen bitartez. Helburu nagusia etengabeko hobekuntza da, bezeroaren zerbitzura.

IDOIA GARAIZABAL

Zestoako Bainuetxeko zerbitzu termaletako eta kalitatearen zuzendaria:

“Bezeroek badakite zerbitzuen kalitate kontrola hauen prestaziorako bermea dela”

- Zergatik egin duzue turismoaren sektorearekin lotutako sistema eta kalitate-programetako batzuen aldeko apustua?

ISO n zertifikatutako gestio sistema izan arren, espezifikoki turismo-ko kalitate sistema batean zertifikatuta egoteak bai guri eta baita bezeroei ere saltzen dugun produktuaren eta bezeroak eskatzen duen zerbitzuaren gaineko informazio zehatzagoa eskaintzen digu.

- Zertifikatutako Kalitate Turistikoaren Q-a bezalako kalitate sistemak nolako abantailak ekarri dizkio zure erakundeari?

Kalitate turistikoaren zertifikatuak ahalgin guztiak zerbitzuaren hobekuntzara bideratzea dakar azken helburu moduan.

- Ezarpenaren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne funtzionamenduari begira? Eta kudeaketa gaietan? Eta azpiegitura kontuetan?

Orokorrean, sailen arteko koordinazioa hobea dugu, barne komunikazioari esker; eta, kalitate bilerekin, sailetako errealitateaz gehiago jabetu gara. Azpiegiturari dagokionez, etengabeko hobekuntzak, gure bezeroen gogobetetze inkestak eta

barne eta kanpoko auditorien emaitzek ematen digute behar dugun informazioa epe motzera edo luzera inbertsioak egiteko orduan.

- Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?

Zerbitzuen kalitate kontrola hauen prestaziorako bermea da eta bezeroek horrela ulertzen dute. Hor sartu ditzazkegu zerbitzuen segurtasunarekin lotutako guztia (arlo bakteriologikoa, balneario eta sukaldaritza zerbitzuak, bezeroaren jabetza) establezimenduko zerbitzu guztien gestio informatizatua.

- Zer esango zenieke turismo arloko profesionalen Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpeneko animatu daitezenez?

Zerbitzu prestazioaren kalitate sistema honek gure egoeraren aurreko eskariaren bilakaera zehazten ahalbidetzen digu eta, horrela, gure bezeroen beharrei aurre hartzen.

- Beste enpresari batzuei kalitate sistema zertifikatuarekin lan egiteko gomendatuko zenieke?

Noski! Hasieran lan erantsia dirudienaren emaitzak epe laburrean nabari daitezke.

- Kalitate Turistikoaren Q-a proiektuak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?



Gaur egun oso zaila da sektorean lehiatzea zertifikatutako kalitate sistema izan ezean.

- Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke garrantzitsuen edo erabilgarrien modura?

Gure zerbitzuen Diseinu eta Garapen arloa, asko harriztu lagatzen dituen, hedatuago baitago objektuen fabrikazioarekin lotzen duen ideia zerbitzuenarekin lotzen duena baino.

- Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?

Etengabeko hobekuntza taldeak dihardugu garatzen, prozesuaren araberako banatuta, hainbat sailen parte-hartzearekin; eta batzorde birtualak ere garatzen dihardugu. Azkenik, formazio ikastaroen balorapena egiten dugu denbora errealean, intranetaren bidez, hartzailen zein ardura-dun zuzenen eskutik.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

Jardunbide egokirako programak: helburua enpresarioen “profesionalizazioa” eta jomuga-kontzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 274 establezimendu daude.

Kalitate Turistikoaren Q-a programa: bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 267 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.

EFQM Bikaintasun eredu: erakundeek kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen diharduten 17 establezimendu daude Euskadin.

Euskara indartsu Bahía Blancako Euskal Astean

Munduaren beste aldiaren euskeraz bizitzeko aukeria izan eban hamendik juandako bost herri-kirolarik osatutako taldiak. Argentinan Euskal Astia egiteku zala-eta, haraxe jua ziran, Bahía Blancara zihetzago esateko, Ostolaza harrijasozailia eta Zelai, Flores, Agite eta Bihurri aizkolarixak. Azken honekin, Ernesto Ezpeleta eibartarrarekin, egoteko aukeria izan dogu eta "harrittuta" aurkittu dogu han bizi izandakuekin. Urriaren 27xan jua ziran eta azaruaren 5ian bueltau, tartian herri-kiroletako hiru erakustaldi emonda: bi Euskal Asteko ferixagunian eta bestia hiriaren erdigunian, "programia ixteko".

Patagoniatik gertu eta Buenos Aires hiriburutik 700 bat kilometrora dagan Bahía Blancan "badago mobimendua eta, baita, euskeraz jarduteko okasiñua". Holan bizi eban Bihurrik hango aste berezixa: "Ikustekua izan zuan, hango borondatia eta gogua. Zenbat jende euskal dantza ikastaruetan, zenbat euskeria Internetetik ikasi dabenak...". Argentinarren tonuaz berba egitten daben galdetuta, ezetz diño Ezpeletak: "Batua... eta klarua. Berdin zioz gurasuak Bizkaia aldekuak edo Goierrikuak izan. Ikasittakuak di-

ttuk-eta!". Euskeriaren inguruko zaletasun horren adibiderik garbixena dakagu egon ziran ekitaldi gehixenak izan eban jarraipenian: "Seiehun dantzari aldi berian dantza egitten... Holakorik hamen ikusten diagu, hala? Han bai! Eta eda-de guztikuak hankak martxan!". Ekitaldi mordia izan ziran zazpi egunetan egindakuak: pelota torneuak, trikitilarixen emanaldixak -"Laket taldia bertan izan huan"-, paillazuen ikuskizunak...

Bihurrik rantxo haundi baten hartu eban ostatu. "Zaldibikua huan bertako jabia eta han ibiltzen gintuan, abioian, alde babetik bestera; biharrezkua zuan, rantxua izugarrixa zalako", diño berak. Safari saiakeria be egitiñ eban Ernestok: "Hala deitzia be lotsa pixkat emon arren, ehizara-edo jua gintuan. Riflia



hartu eta, jakin be, ez nakixan zeren billa. Emoten dabenez, ostruken billa juaten dittuk. Gure kasuan? Ikusi bez; bi-hiru orduko mendi bueltan geratu zuan dana". Jan ondo egitiñ ebela diño eibartarrak: "Hori bai, hango haragixak fama izango dik, baiña nik neuk hamengua nahixago. Ardaia bai, garagardua baita... horrek iñongo inbidixarik ez dakenak!". Moto-zerra hartu eta, han be, erakutsi

zetsen argentinarreri bere maisutatsuna eserlekuak egitten. Eta egurrak, ez zenduazan hamendik eruango, ezta? "Han prestatuak zittuazan, guk hamendik neurrixak emonda egindakuak. Egurra be... paguarena ez huan, txopua eta eukaliptua baiña". Hamengua -edo hamengo parekua- euskeria. Isildu barik, aste osuan, erdarara pasau barik bizitzeko aukeria emon zetsena.



Bihurri (hirugarrena ezkeretik hasitta) Argentinako lagunekin; danak be txapela buruan dakela.



Bihurri mahai baten bueltan Euskal Astian. Goixan, berak egindako aulkian jarritta.

eramateko
janaria

come
Zuloagatarren, 7
943 03 01 87

laster zabalik

- Eguneko menua
- Plater prestatuak
- Postrea, ogia eta edaria
- Zapatu eta domeketa gure zabalik

BEZeRo GUZtiE_NdaKO San AndRes ZORiontsuak!



**KAFEETAN
ETA PINTXOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Toribio Etxebarria, 21
Tel. 943 20 70 07
20600 EIBAR

Bista Eder, 10 **Portalea
Jatetxea**

"Eguneko Menua"
Afariak Asteburuetan
Pintxoak
Ogitartekoak



943 20 68 68 **IGANDEETAN ITXITA**



UNBE TABERNA

- × Pintxoak
- × Bokatak
- × Bazkariak

Plaza Osoa, 31 Tel: 943 20 00 81

EGUNEROKO MENUA

Julian Etxebarria, 18

Beste urtebete zuekin!
astelehenetik barixakura,
10.30 ETATIK AURRERA
zapatu eta domeketan
11.30 ETATIK AURRERA

Onto gasa sanandresak!

kafe antzokia




**CHALCHA
JATETXEA**

*Menu bereziak
banketeak
despedidak...*

JAI ZORIONTSUAK

ISASI, 7 **TEL: 943 20 11 26**

Bar Ego-Gain

EIBARREN, ANBULATEGIAREN AURREAN



Goizeko 07.00etatik zabalik
GOSARI ETA PINTXOETAN
(aukera zabala)
ESPEZIALIZATUAK



Onda pasau!

K-OX



ZONA WIFI

LURPE

music

DISCO BAR

www.barlurpe.com - ☎ 943 530 637 - Pl. Urzaga, 6 - EIBAR

**Dantza Egizu
Sanandresetan**

Bartzelona ahaltzua hartuko du Arratek gaur, 21.00etan

JD ARRATEK FC BARTZELONA HARTUKO DU GAUR, 21.00-ETATIK AURRERA, IPURUA KIROLDEGIAN. Bigarren postuan dago Bartzelo-



Cuturaren barnekaldiek zer esateko asko izango dute azken emaitzan.

na eta munduko talde indartsuenenatarikoa da. Arrate, bestalde, joan den astean San Antonioren aurka galdu ostean 11. postuan dago eta puntu bira ditu jaitsiera postuak.

Julian Ruizen taldeak Asobal ligan aurreko postuetan dauden taldeak hartu ditu azken bi asteotan eta emaitzak ez dira positiboak izan. Bartzelonaren aurka ezustekoa ematen saiatuko dira eibartarrak, baina kataluniarrek garaipena behar dute Ciudad Realen bidea jarraitu nahi badute, bestela atzean geratuko liratekeelako. Ipuruan, beraz, Nagy, Rutenka, Juanin Garcia eta Iker Romeroren mailako jokalariek ikusi ahal izango dira gaurkoan.

Agirresarobe-Erik pelotariak finalera

AGIRRESAROBE ETA ERIKKEK GIPUZKOAKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETAKO JUBENILEN FINALERAKO TXARTELA lortu zuten joan den asteburuan Urrietako bikoteari 22-12 irabazi ostean. Kadeteak dira eibartarrak, eta nahiz eta eurak baino jokalaria nagusiagoen aurka jokatu, oso joko segurua egin zuten eta etsaien ahuleziak aprobetxatu zituzten. Final nagusia bihar jokatuko dute Errenteriako frontoian, 17.30etatik aurrera.

Kadeteetan 22-9 galdu zuten Larrauri eta Andonegik, eta gauza bera egin zuten seniorretan Unamunzaga eta Agirrebeñak 22-6, Hernani eta Azpeitiako bikoteen aurka, hurrenez hurren. Eskuz banakakoan galtzaile atera zen baita ere Egaña, Elgetako Salaberriren aurka 22-19.

González eta Beroiz Kantabrian garaile

ESCUDERIA EIBARKO GERMAN GONZALEZ ETA IBAN BEROIZEK KANTABRIAKO TALDE KOPA IRABAZI ZUTEN Comillasko Rallyan 4. postuan amaitu ondoren. Lidergoan ekin zioten eibartarrek azken lasterketa honi eta lehen postuari eutsi ahal izan zioten. Denboraldi bikaina egin du bikoteak eta horren erakusgai da titulua.

Escuderia Eibarko beste pilotoak, bestetik, Sunsundegi Memorialean aritu ziren. Roland Holke eta Fernando Beorlegik lasterketa lagai behar



izan zuten, horrela Euskadiko FEVA saria lortzeko aukerari uko eginez. Escuderia Eibarko onenak Xabier Redondo eta Iñaki Morales izan ziren, 7. postuan amaituz.



Ferrolen zelairatutako hamaikakoa.

Eibar-Compostela domekan Ipuruan

BIGARREN B MAILAKO 1. MULTZOKO LIDERRAK, EIBAR KE-K, COMPOSTELA TALDEA HARTUKO DU DOMEKAN 17.00etan Ipuruan. Armaginek sendo eusten diote lidertzari eta azken sailkatua izango da asteburuan berdegune eibartarrean arituko dena. Gorriurdinek 10 puntuko aldea daukate 5. sailkatuarekin alderatuz, baina 1. postua lortzeko helburuari ekiten diote denboraldiari, horrek iogoera faserako abantaila handiak ematen dituelako.

Compostela ez da, bistan denez, 1990. hamarkadan Lehen Mailan zebilen talde bera, baina arazo ekonomikoa izan eta gero aurrera egin nahi du, nahiz eta azken postuan dagoen gaur egun. Eibarrek, bere aldetik, garaipen bolada luze baten ostean berdindu egin zuten Ferrolen, joan den astean. Hiru puntuak ekarri ez bazituen ere, emaitza positiboa lortu zuten Angel Viaderoren mutilek eta aurkarien emaitzak ikusita ona izan zen.

Urbat-Urkotroniken garaipena etxean

AZPEITIAKO IZARRAITZ JASO ZUEN URBAT-URKOTRONIKEK AURREKO ASTEBURUAN ETA 13-6 GAILENDU ZITZAIEN. Eibartarrek hasieratik erakutsi zuten euren nagusitasuna eta 5-2 irabazten zuten lehen zatian. Bigarrean jokalaria gazteenen txanda iritsi zen eta markagailuan hurbildu zen talde azpeitiarra, baina hirugarren eta laugarren zatian porteriari hutsean eusteko gauza izan ziren armaginak eta beste bost gol sartu zituzten gainera.

Urbat-Urkotronikeko seniorrak Sestaoren aurka arituko dira Euskal Herriko ligako 4. jardunaldian, eta jubuenilek Nautica-Maristas eta Getxoren aurka I. San Andres txapelketa jokatuko dute Orbeako kiroldegian.

Taloak Sanandresetan

Urbat-Urkotronikeko waterpolariak, bestetik, Sanandresetan parte-hartze aktiboa izango dute eta taloen postuaren antolaketaz arduratuko dira Untzaga plazan.





Iaz Zaragozan jokaturako Espainiako txapelketaren podiuma.

Ipuruia Klubeko gimnastak Logroñon txapeldun

CLUB IPURUAKO GIMNASTEK EMAITZA BIKAINAK LORTU ZITUZTEN LOGRONO HIRIAREN XXI. TXAPELKETAN. Seniorren lehen postua lortu zuten Madrilgo Chamartin eta San Sebastian de los Reyes taldeen aurretik. Infantilek, bestetik, 2. postuan amaitu zuten txapelketa selekzio katalanaren atzetik eta Club Gimnasta Logroñoren aurretik.

Asteburu honetan Gabonak aurretiko azken txapelketan arituko dira eibartarrak Iruñako Reyno de Navarra txapelketan. Bertan lehen taldea, seniorrak eta infantilak arituko dira. Domekan, gainera, lehen taldekoak Zaragozako Villa de Utebon hartuko dute parte.



Javier Murillo laugarrena Euskadiko karate txapelketan

URKI-AMANA KARATE TALDEKO JAVIER MURILLOK EUSKADIKO KARATE TXAPELKETAN HARTU ZUEN PARTE joan den asteburuan eta 4. postua lortu zuen kata junior mailan. Astigarragako kiroldegian oso ondo aritu zen eibartarra eta gutxigatik geratu zen

podiumetik kanpo. Kontuan izan behar da Espainiako txapeldun bi aritu zirela txapelketan eta bien aurka galdu ostean geratu zela dominarik gabe Javier. Eibartarrak Euskadiko Txapelketan parte hartzen duen lehen aldia da; beraz, ondo baloratu beharreko postua da laugarrena.

ASTELENA

Olazabal / Eulate
Aritz Lasa / Cecilio

**Mtz. de Irujo / Beroiz
Gonzalez / Pascual**

Ongay / Urberuaga
Ibai Perez / Arruti

Hilaren 30ean
17.00etan
Sanandresetako
pelota jaialdi
bikaina

ERRESERBAK
661 259 009
(Olaya)

4 eta erdiko
finalistak
nor baino nor
ikusteko
aukera




aspepelota.com

TXARTEL LEHIATILAN
egun berean: **12.00/13.00**
eta **15.30**etatik aurrera

Nafarroara joan zen XXXII. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketaren lehen saria, Corellara hain zuzen ere. Alvaro Gil gaztea izan zen garailea, 750 euro eta garaikurraren irabazlea. Haurren artean, bestetik, Eibarren gelditu ziren sari guztiak eta Jone Bengoak lortu zuen lehen postua.



ALVARO GIL, margolaria:
"Azkar margotzea gustatzen zait"

- Nola egiten diozu aurre Eibarko Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa modukoei?

Hasteko herri barrutik ibiltzea gustatzen zait eta Eibar nahiko txikia da. Zer margotu pentsatzen dut; oraingoan leku bat margotzea pentsatu nuen, baina ideiaz aldatu nuen. Azkenean margotu nuen tokia erreala goa iruditzen zitzaidan eta gustukoago neukan. Agian estetiki ez zen bestea baino politagoa, baina margotzerakoan hainbat gauza sakrifikatu behar dira eta margotutakoa nik iradoki nuenari egokitzen zitzaien.

- Ordu gutxi zenuten margolana egiteko. Nola daramazu horri makurtu beharra?

Gelditu barik egin behar duzu lan. Azkar margotzea gustatzen zait. Lehiaketa batzutan denbora gehiago lagatzen dizute, baina nik nahiago dut azkartasuna, horrela margolana freskoagoa irutzen delako. Ohitu egiten zara azkar margotzea eta presioarekin lan egitea eta gustuko dut. Horrelako lehiaketetan jendea zure lana ikustera hurbiltzen da eta hor sortzen den giroak animatu egiten nau. Eibarko kasuan ez nuen oso txoko polita aukeratu marrazteko, baina jendea berdin hurbildu zen eta zoragarria izan zen.

- Aurretik Eibarren izandakoa zara zein leku margotu jakiteko?

Orain dela urte asko tailer bat ikusten egonda nintzen; besterik ez.

- Horrelako lehiaketetan askotan hartzen duzu parte?

Zapatuan egiten bada, oso urruti ez badago eta eguna libre badaukat, joaten naiz.

- Sari asko jaso dituzu?

Aurtengo uda nahiko ondo joan da. Bilboko Goya lehiaketan, Potugaleten eta Villamayoren (Zaragoza) lehen saria jaso dut; Leioan eta Iruñean 2.a; eta Bilboko beste lehiaketa batean 3.a. Corella eta Bilbo artean bizi naiz eta, inguruko lekuren batean lehiaketarik badago, joaten naiz. Kilometro asko egin beharrez gero, oso goiz altxatu behar zara; beraz, hurbiltasuna garrantzitsua da.

- Margolaritza lana ala afizioa da zuretzat?

Orain lana da. Estudioa daukat eta momentuan koadro biren gainean dihardut lanean. Bilboko hainbat erakusketatan izan naiz eta eskulturak sortzen ere nabil. Hurrengo barkarkako erakusketa Murtzian egingo dut nazioarteko lehiaketa baten barruan. Ekoizpen-fasean dagoela esan daiteke, gauzak sortzen. Horko argazkiekin jarraituko dut gero.



Titirijai 2009 eguenetik aurrera

ABENDUAREN 3AN ABIATUKO DA TITIRIJAI 2009 XXVI. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA GUREAN. Udalak eta Uni Kultur Elkarteak, Tolosako XXVI. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren laguntzarekin, hiru talderen lanak gerturatu dizkie eibartarrei. Lehenengo ikuskizuna Israelgo The Dream Theatre taldeak eskainiko du, eguenean, 15.00etatik aurrera Hezkuntza Esparruan:

'En busca del sonido encantado'. Simon izeneko mutikoaren amak abestean sorgindutako soinua entzuten da, berarekin hegan egin dezakeen soinua, baina egun batean sorgin gaiz-

to batek soinu hori lapurtu egingo dio eta horrela hasiko da umearen bidaia luzea.

Abenduaren 4an, berriz, Mexikotik datorren Carlos Conversok 'El oso que no lo era' izenburuko lana taularatuko du, hori ere 15.00etan Hezkuntza Esparruko aretoan. Eta hirugarren ikuskizuna Coliseo antzokian izango da, abenduaren 5ean, arratsaldeko 17.00etan (3 euro). Koreako Art Stage San taldeak 'Dallae Story' lana taularatuko du. Ikastetxetako haurrak joan ahal izateko egin beharreko erretserbak 943-208444 telefonoan egin behar dira.



Norman taldearen lehenengo diskoa

DURANGOKO AZOKARAKO IZANGO DA KALEAN NORMAN TALDE EIBARTARRAREN LEHENENGO DISKOA, GAZTELUPEKO HOTSAK-EN ESKUTIK. Legarreko musika lokaletan, Electric Dolls taldearekin jardundakoak dira Alex eta Kobi eta Kepa, berriz, The Gominols eta Skandalu Publiku taldeekin ibili zen. Horiei Beñat batu zitzaion eta, 2008an, Danbaka musika lehiaketan sailkatu eta finaleraino ailegatu ziren. Eta aurten Bilbo Hiria lehiaketarako sailkatzea lortu dute. Disketxetik diotenez, "lehehengo disko hone-tan garapen eta gustu handiko kantuak aurkituko ditu entzuleak, abiadura, psikodelia, erritmo aldaketa eta giro oso ilunez josiak".

ELGOIBARko San Miguel gainean San Andres Menu Berezia

- Aperitiboa.
- Bieira eta onddo entsalada epela.
- Madagaskarreko ganboia plantxan.
- Legatza-solomoa txipiroi-saltsarekin.
- Azpizuna foie eta Málaga Virgen saltsarekin.
- Praline-krematsua txokolate eta perfumatutako natillarekin.
- Kafea eta ardoa (kriantza).

39,50€+ BEZ

*Jaietan ondo pasatu...
eta mahaian gozatu...*



Belaustegi Baserria

JATETXEA

www.belaustegi.com

*Modistilletan
Menu Berezia,
ondoren dantza eta
opari baten zozketa
Abenduak 12, zapatua*



INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Tel. 943 74 31 02

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketak
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Orain Elgoibarko
NETTON ere bagaude

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com

laburrak

ZAPATUKO IPUINA

Bihar arratsaldean, 18.00etan ipuin kontalari saioa eskainiko du Rosa María Martínezek umeen liburutegian, Zapatuko ipuina programaren barruan: 'Hala bazan' izenburuko ikuskizuna 3 eta 8 urte bitarteko umeentzat egokitutako lana da eta Kutzak babesten du.

SARIA LIBURUTEGIARENENTZAT

Liburu sorta bateko saria lortu du Juan San Martín Liburutegiak Irakurketa Bultzatzeko 2009ko 'María Moliner' XII. Kanpainan. 50.000 biztanletik beherako udalerrietan irakurzaletasuna bultzatzeko kanpainan jaso duen saria 'Jugando a leer: Puz-tees' proiektuarengatik eman diote.

Gozogintza ikastaroa abenduan

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAREN ESKUTIK GABONETARAKO POSTRE GOZOAK EGITEN IKASTEKO aukera izango da abenduaren 10ean eta 16an. Ikastaroak arratsaldeko 18.30etan hasiko dira eta ordu bi inguru iraungo dute. Saio bakoitzean bi postre egitea aurreikusten da. Izena emateko ...eta kitto!-ra deitu (943-209818) behar da eta 10 euro ordaindu (...eta kitto!ko bazkide eta Berbetan-eko kideentzat 5 euro). Ikastaroa Kama-roak elkartearen egingo da.


Exfibar 2009ko sariak banatuta

DOMEKAN PORTALEAN INAUGURATU ZEN EXFIBAR 2009 ERAKUSKETAKO SARI NAGUSIA PEPITA PEDRERORENTZAT IZAN DA, 'Zelandia One Penny' bildumarekin. Filatelia Tradizionala batzen duen A taldean, berriz, Luis Mari Domínguezek jaso du lehen saria eta bigarrena, berriz, Javier de Sebastianentzat izan da. C taldeko sariak, berriz, honako hauek eskuratu dituzte, gai konkretu baten inguruko seilubilduma banarekin: Luís Alberto Pérez, Antonio Márquez, José Carlos López, Feliciano Vez, Francisca Martínez eta



Roberto Murgak. E taldeko saria, berriz, Julen Markoartuk jaso du. I Taldeko irabazleak Antonio Tristán, Segundo Heredia eta Moisés Hernández izan dira. Eta, amaitzeko, gazteek osatutako J taldean Roberto Palomino eta Jorge Miguel Parada saritu dituzte.

Arrate Filatelia Elkartek antolatutako erakusketa azaroaren 29ra arte bisitatu daiteke Portalean, ordutegi berezian: astelehenetik barixakura 18.00etatik 20.00etara eta zapatu eta domekan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara.



Jesus Egigurenen liburu aurkezpena

EGUAZTENEAN, ABENDUAREN 2-AN, JESUS EGIGUREN IMAZ-EK 'HISTORIA DEL SOCIALISMO VASCO (1886-2009)' LIBURUAREN AURKEZPENA EGINGO DU PORTALEAN, 19.00etatik aurrera. Mario Onaindia Fundazioak antolatutako aurkezpenean liburuaren egileak berak azalduko ditu bere lanaren nondik norakoak. Lanak 1886 eta 2009 urteen arteko euskal sozialismoaren ideologia eta antolaketa inguruko analisia jasotzen ditu eta tartean Eibarrekin lotutako hainbat pasarte daude.



Eguraldia lagun, jendetsua izan zen kalejira. / MAIALEN BELAUSTEGI

Santa Zezilia arrakastatsua

EDERTO OSPATU ZUTEN SANTA ZEILIA HERRIKO MUSIKARIEK, TARTEAN CIELITO MUSIKA BANDAKOEK. Ohiturari jarraituz, zapatu gauerdian Serenata eskaini zuten herriko kaleetan, Untzagatik abiatutako kalejiran. Aurten, gainera, eguraldia lagun izan zuten eta beste batzuetan baino jende gehiago animatu zen parte hartzera.

Sostoa abesbatzaren otarra

AZAROAREN 21-EAN, ZAPATUAN, SOSTOA ABESBATZAK GABONETAKO OTARRAREN ZOZKETA egin zuen Toribio Etxebarria kalean eta irabazlea argazkian agertzen den Oier Aginaga izan zen, kolore gorriko 4.557 zenbakia-rekin. Zorionak!



BEZerO GUZtiEndaKO San AndRes Zoriontsuak!



Toribio Etxebarria, 4

TXOKO

Giro alai *Sanandresetan!*

UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR

ESKARNE

JATETXEA

- eguerdiko menua
- menu bereziak

Arragueta, 4 Tel. 943 12 16 50 20600 EIBAR



TABERNA
PIZZERIA
BOKATERIA

BOSSA

Ego gain z/g
(Arrate hotelaren alboan)
943 20 67 53

San AgustIn, 5
Tel. 943 20 71 52



Jose Luis
kafetegia

monte a

eibarro herrikoa

pintxuak,
bokatak, afarixak
eta kazuelitak

eraberritze berria - 943254113 -
<http://monteak.net>

KATU



BIDEBARRIETA, 1 **TABERNA**

KALE

GURE LEKU

Isasi, 3
20600 EIBAR ☎ 943 20 71 89

Taberna - Snack

POZKARI

*Pintxo beroetan eta
hotzetan espezialistak*

J. Etxebarria, 11
EIBAR ☎ 943 70 20 37



Josu Garate

Beste estilo bat

Ba bai, nik beste estilo bateko inguruak imajinatzen neban: Alfako edifizio haura birmoldatu, biziberritu eta balixo barritan jarritakua: hantxe museo edar bat akaso eta estruktura metalikuan azpitan pasiarria arbolekin, Europako hainbat herrialdetan ikusten diran galeria horren estilora, baña geuria. Hori jua zan. Oin, Bizkaiko aberatsak bakarrik ez, geuk be merezi dogu bertso graziosoren bat edo beste. Jo! Baiña ez esan harrotasun puntua be emoten ez dabenik. Edo ilusio kikatora behintzat. Eibar, gure Eibar kaltetua, periodiko eta telebisiñotan Gipuzkoa osuari estilua emotiaz, estilo barri bat zu! Baiña eibartarrona ete? Eibartarrok estilua danerako izan izan dogu: estilua pelotarako; janzteko eta euskerazko jardunerakua, katurako estilua, eta politikarakua, zer esan? Egixa ete da ba, azkenian kapitalidadia lortu bihar dogula ingeles jostunen eskutik? Hainbeste txaleko berde-naranjakin, Gabonetako arbolia emon izan dau azkenengo egunetan Egogainzazpi atari aurre eta inguruak. Extralurtarren bat bertan aterrizatzera baletor moduan, "Encuentros en la tercera fase" haretako estilora, akordatzen? Bueno, ondo da. Beste behiñ, atzera begiraten geratu barik, Eibarrek aurrera egin deian erabagi badabe, egingo dotsagu kolpe datorrenari, horixe dalako gure katebegixa, baiña ia hurrenguan, gitxi batzuenera baiño, danon estilora egitterik dakagun!

'Zirikadak' eta 'Eztenkadak' Euskararen Egunerako


EGUENEAN, ABENDUAREN 3-AN, EUSKARAREN NAZIO-ARTEKO EGUNA OSPATUKO DA ETA GUREAN EGUN HORREN INGURUAN ANTOLATUTAKO EKITALDI BEREZIAN berri eman duten gaur (azaroak 24) prentsurrekoan: Juan San Martinek idatzitako 'Zirikadak' eta 'Eztenkadak' liburuen jendaurreko irakurketa etengabea egingo da udaletxeko pleno aretoan, 08.00etatik 20.00ak bitartean. Udalak eta ...eta kitto! Euskara Elkartek, herriko elkar-te eta erakundeekin elkarlanean eta La Caixa eta Urkotronik-en babesarekin antolatutako ekitaldiak, "herritarren partehartze zuzena" bilatzen du. Izan ere, urtero ekitaldi bereziak antolatu dira herrian holako egunean, baina Udalean herritar guztiek parte hartzeko moduko ekitaldiren bat antolatzeko eskaera jaso dute behin baino gehiagotan eta, beste herri batzuetan ere horrelako irakurketa saioek izandako harre-ra onarekin animatuta, aurtan Eibarren ere horretarako tartea eskaini nahi izan dute.

500 laguneko zerrenda

Horrez gero 500 bat eibartarrek osatzen dute irakurleen zerrenda. 08.00etan Miguel de los Toyos alkateak ekingo dio saioari eta atzetik, honakoek jardungo dute: Urkotronik-ek, La Caixa-k, Unibertsitate Laboralak, Ignazio Zuloaga BHI-k, Armeria Eskolak,



La Caixa eta Urkotronik-en babesarekin izan du ekitaldiak.



Pleno Aretoan egingo da irakurketa, 08.00etatik 20.00etara. / SILBIA HERNANDEZ

Aldatzek, La Sallek, Urkizu ikastetxeak, San Andres ikastetxeak, Mogel Iasak, Itzio BHI-k, AEK euskaltegiak, Eibar foball taldeko jokalariek, zinegotziek, Urbatek, Dibujo Eskolak, Jaz Zubiaurrek, Zeramika Eskolak, Eibar Rugby Taldeak, Eibar Merkataritza Gune Irekiak, Dendarien Elkartek, Juan San Martin Liburutegiak, UEU-k, Klub Deportiboko Kultura batzordeak, Badihardugu elkar-teak, Goruntz abesbatzak, Gureak-ek, Arrateko Andra Mari ikastetxeak, Amaña ikastetxeak, La Salle Isasi ikastetxeak, Iturburuk, ...eta kitto! Euskara Elkartek, Eibar aldizkariak, Eibar.org elkar-teak, Andirao elkar-teak, Arrate Kultur Elkartek, Klub Deportiboko mendi taldeak, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolak, Udal Euskaltegiak, Astixak (Errota gaztelekuak), Ego Ibarra batzordeak, Teknikerrek, Kezka dantza taldeak, Euskal Herrian Euskaraz-ek, Armagintzaren Museoak, Klub Deportiboko pelota batzordeak, Sostoa abesbatzak eta beste hainbatek. Izan ere, zerrenda irekia da eta 3-5 minutuko tartean San Martinen lanaren zati bat irakurri nahi duenak Euskara-Kultura sailera deitu dezake, 943708435 telefono zenbakira eta bertan izena eman. Babesleei esker, irakurle bakoitzak tabernan kafea musutruk hartzeko aukera izango du eta, gainera, liburuen azaleko irudia duen pin bana banatuko diete.

Bestalde, saioak dirauen bitartean nahi due-

nak pleno aretora sartzeko aukera izango du eta bestela ere megafonia bitartez Untzagan entzuteko moduan izango da. Irakurketa saioa amaitzeko, berri, 20.00ak aldera Juan San Martin zenaren familiakoak eta Julen Zabaleta liburu bietarako marrazkien egilea izango dira ekitaldian.


EUSKARAREN

HIIKA IKASTEKO METODOA PLAZARATU DU URRUXULEGIK. Jon Urruxulegi euskalgintzaren alorrean lan ugari egindakoa da: euskara irakasle izandakoa, Zeruko Argiako kolaboratzaile ere bai, idazle gisa saikera eta nobela landu ditu. Bere eskutik sortuak zituen *Sinonimoen kutxa* eta *Euskal sufiziazioaren kutxa* lanak. Oraingoan, berriz, hika hitz egiten ikasteko metodoarekin datorkigu. Txertoa argitartzearen bidez kaleratu duen liburu honek hitanoa menperatu nahi duenari bidea leuntzea du helburu. Horretarako, eduki teoriko batzuez gain (alor gramatikoa, aditztaulak eta antzekoak) hainbat ariketa-testu bildu ditu Urruxulegik, baita lexikoari buruzko oharak eta interesezko bibliografia ere. 125 orrialde ditu liburuak eta 9,45 eurotan dago salgai. Interesa badun/k, bada-k/k.


TXOKOA

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, ALAITZ, gaur bederatzirte egin dozuzelako. Muxu potolo-potoluak ama, aitta eta Leireren partez.




Zorionak, IZARO, urte bi egingo dozuzelako martitzenian. Muxu pillua aitta, ama, aitxita-amama, osaba-izeko eta lehengusu-lehengusiñen partez.




Zorionak, ENEKO, hillaren 25ian urte bi egin dozuz-eta. Ainara, Alex, Javi eta Auriren partez. dozuez-eta.



ARRATE Delgado Aranzeta. Zorionak, kukulu, bixar urte bi egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JONE, hillaren 19xan bederatzirte bete zenduazelako. Muxu haundi bat aitta eta amaren partez.



Zorionak, NORA eta MIKEL, bixar ezkontzen zarielako. Ordua zan! Segi oiñ arte moduan edo hobeto. Famelixaren partez.



Zorionak, JAVIER eta AMAIA, bixar zuen urrezko ezteiak ospatuko dittugu-eta. Famelixa guztiaren partez.

JAOTAKOAK

- Markel Imedio López. 2009-XI-15.
- Ander González Alvarez. 2009-XI-15.
- Maria Salazar Onaindia. 2009-XI-20.
- Aner Murillo Comino. 2009-XI-20.

HILDAKOAK

- Francisco Díaz Martínez. 76 urte. 2009-XI-19.
- Javier Arrizabalaga Valdaliso. 75 urte. 2009-XI-24.

zinea Colliseoan

27an, 22.00etan; 28an, 17.00, 19.45 eta 22.30etan
29an, 17.00 eta 20.00etan; 30ean, 20.30etan

"Luna nueva"

Zuzendaria: Chris Weitz
Aktoreak: Kristen Stewart, Robert Pattinson, Taylor Lautner, Chaske Spencer...



Bella arriskuan izango dela eta, Edward-ek duten harremana albo batera lagatzea erabaki du. Bella eta Jacob-en arteko harremana estutzen joango da. Denborarekin, gero eta sekretu gehiago ezagutuko ditu Bellak, guztiak arriskutsuak...

"Planet 51"

Zuzendaria: Jorge Blanco
Pertsonaiak: Chuck, Neera, Lem, Skiff...



Charles 'Chuck' Baker kapitainak bidaia egin du espazioan eta planeta berri batera ailegatu da. Bertan inor ez duela aurkituko pentsatzen badu ere, izaki berde txiki batzuk aurkituko ditu. Chuck-en beldur direla ikusiko du...

"Milenium 2"

Zuzendaria: D. Alfredson
Aktoreak: Michael Nyqvist, Noomi Rapace, Annika Hallin, Per Oscarsson...



Millenium aldizkariko kolaboratzaile bat eta bere emaztea hil dituzte. Lisbeth-ek hil dituela pentsatzen du poliziak, baina Mikael-en ustez hori baino gehiago dago hilketa horren atzetik, tartean Lisbeth-en gaztetako pasarterik ilunena...

Ego-Ibar

"Garage"

Zuzendaria: L. Abrahamson
Aktoreak: Pat Shortt, Anne-Marie Duff, Conor Ryan, Don Wycherley...



Josie Irlandan bizi da eta gasolindegiz zahar baten dihardu lanean. Bizitza aspergarria duela dirudi, baina bera pozik dago. David gaztea ezagutzen duenean gauzak aldatu egingo dira, gainera Carmel lagunarekin duen harremana arriskuan dago...

horoskopoa

ARIES

Ez zara konforme egongo lagun batekin eta giro txarra sortuko da zuen artean. Borroketan beti daude galtzaileak: honakoan, zuek biok.

TAURUS

Ahalegin guztiak egin dituzu helburua lortzeko eta emaitza ona izango du lan guzti horrek. Esfortzuak merezi izan duela ikusiko duzu.

GEMINI

Hobe gauzak gehiegi ez aldatzea. Ondo doakizu guztia eta ez egin okertuko duen ezer. Izan ere, trebea zara egoerak okertzen.

CANCER

Hegan egitea gustatuko litzaizuke alde batetik bestera erraz mugitu ahal izateko. Konforma zaitetz, momentuz, daukazu hanka lirain horiekin.

LEO

Urrats garrantzitsua ematekotan zaude, baina ez dakizu nola egin. Ondo pentsatu, egindakoa ez duelako izango atzera bueltarik.

VIRGO

Zure bizitza edozein zinema gilek filmatuko luke. Denetarik gertatzen zaizu eta aste hau ez da gutxiagorako izango. Akzioa, drama al komedia?

LIBRA

Baserritar jantzirik ez baduzu ere, zapia gutxienez jantziko duzu, ez? Ez zaitetz horrelakoa izan, murgildu zaitetz jaietan eta gozatu ezazu.

SCORPIUS

Zure trebetasuna erakusteko aukera izango duzu eta ikusleak harrituta utziko dituzu. Ea horrelako beste aukera bat izaten duzun aurrerantzean.

SAGITTARIUS

Gauzak zentzuarekin eta lasai eginez gero ez daukazu zertan kezkatu, baina ezin duzuna da zure interesak lehenetsi eta besteak aparte utzi.

CAPRICORNIUS

Kontrola zaitetz eta ez jan horrenbeste talo; botakagurea izango duzu bestelak! Hobe duzu sagardoarekin konbinatzea. Hori bai maridaje ona!

AQUARIUS

Nola ahaztu duzu bere urtebetetze eguna? Baina nolako memoria daukazu? Seguru min asko egingo zizula horrek. Ez da detaile polita izan.

PISCIS

Ekonomiari gehiegi begiratu gero, ez duzu bizitzaz gozatuko, baina poltsikoa begiratu behar duzu hainbat gauzetaz gozatzeko. Zuk erabaki!

Barixakua 27

MUNDUKO PAISAIK

18.00.- 'Marokoko ipuin tradizionalen tailer elebiduna (arabieraz eta euskeraz), Hajar Samadiren eskutik. Liburutegian.

Zapatua 28

JARDUNALDIA

10.00.- 'Emakumeenganako Indarkeriaren aurrean zer?', Jabetze Eskolaren II. Jardunaldiak. Mahaingurua. **12.00-13.00.-** Tailerrak. Portalean.

EGUNKARIAREKIN ELKARTASUNA

13.05.- Egunkariaren aldeko argazkia. Untzagan (gradetan).

ZAPATUKO IPUINA

18.00.- 'Hala bazan', Rosa María Martínezekin. 3-8 urte bitarteko umeentzat. Umeen liburutegian.

BERTSO JAIALDIA

22.15.- Xabier Paia, Amaia Agirre, Joxe Agirre eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariak. Gai-jartzailea: Asier Ibaibarriaga. Lobiano Jauregian (Ermuan).

Domeka 29

KONTZERTUA

12.30.- Elgoibarko Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.


UMEENDAKO ZINEA

17.00.- 'Los mundos de Coraline'. Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

Martitzena 1

IKASTEN

10.00.- 'Viajes a larga distancia: una visión diferente', Gloria Latasaren hitzaldia (Kutxarekin elkarlanean). EPAn (Isasi, 39).



Eguena 3

EUSKARAREN EGUNA


08.00etatik aurrera.- 'Zirikadak' eta 'Eztenkadak' liburuen jendeaurreko irakurketa etenik gabea. Udaletzeko pleno aretoan.

TITIRIJAI 2009

15.00.- 'En busca del sonido encantado.' (The Dream Theatre, Israel). Hezkuntza Esparruan.

EGO IBAR ZINE KLUBA

17.30 eta 21.00.- 'Garage' (Zuz: Leonard Abrahamson). Sarrera: Euro 2. Hezkuntza Esparruan.



HITZALDI DASTAKETA

19.00.- 'Perretxikoak eta onddoak', Iro Landaluzeren eskutik. Topalekuan.

BIDEO EMANALDIA

19.00.- 'The weather underground' film-dokumentalaren emanaldia. Tallarra gaztetxean.

Eguaztena 2

HITZALDI-AURKEZPENA

19.00.- 'Historia del socialismo vasco (1886-2009)', Jesús Eiguren Imaz egilearen eskutik. Portalean.


DENBORAPASAK

SUDOKUA

1	5	4		2	7			
3				4				
	8	7			5			4
	6	8						5
			4	1				
							2	3
		3		9		7		1
					8	4	9	2
		9	7	1	2		5	

8	9	6	2	1	5	3	7	4
5	4	1	3	7	9	6	2	8
7	3	2	8	8	4	1	9	5
3	2	9	5	4	1	7	8	6
4	6	5	8	3	7	2	1	9
1	7	8	9	6	2	5	4	3
2	5	4	7	9	6	8	3	1
6	1	3	4	2	8	9	5	7
9	8	7	1	5	3	4	6	2

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

– Azaroaren 29ra arte

ENRIQUETA JUARISTI eta **BEGONA EIZAGAETXEBERRIA**ren pintura erakusketa. Topalekuan.

EXFIBAR 2009 XL. seilu erakusketa. *Portalean (ordutegi berezia).*

– Azaroaren 30era arte

ALEX MARTINen argazki erakusketa (3-D). Untzaga jubilatutxean.

JOSE LUIS IRIGOIENen Marokoko argazkiak. Liburutegian.

– Abenduaren 13ra arte

GEMMA MONREAL (pintura) eta **JAIRO BERBEL** (argazkiak) erakusketa. *Elgoibarko Kultur Etxean.*

– Abenduaren 1etik 31ra

ARGAZKILARITZA DIGITALAren hastapen ikastaroan jardun dutenen argazki erakusketa. *Portalea tabernan eta Deporren*

ikastaroak

- **Reiki (Hastapena).**

Noiz: Azaroaren 28an eta 29an, Txaltxa-Zelaiko Reiki zentruan. Izen-ematea: 665743217 (Martin).

- **Autodefentsa ikastaroa (emakumeentzat).**

Noiz: Abenduaren 19an, Ipuruia kiroldegian. Izen-ematea: Azaroaren 27ra arte, Pegoran.

lehiaketak

- **18. Amodiozko Gutunen lehiaketa.**

Lanak aurkezteko epea: Urtarrilaren 7ra arte, Jardun Euskara Elkarte (Errotalde jauregia z/g. 20.570 Bergara). Informazioa: www.jardun.net edo 943763661 telefono zenbakian.

- **'Aratosteak 2010 Eibarren' kartel lehiaketa.**

Lanak aurkezteko epea eta informazioa: Urtarrilaren 15era arte, Pegoran.

- **Antzez Artikulu eta Gidoientzako Narruzko Zezen Sariak.**

Lanak aurkezteko epea: Urtarrilak 22ra arte, Hezkuntza Esparruan. Informazioa: eibarres@terra.es

diru-laguntzak

UMEAK ESKOLARA 2009. Onuradunak: Eibarko erroldan dauden 1994-I-1etik 2003-XII-31ra bitartean jaiotako umeak. Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI.

Onuradunak: Irakaskuntza arautuko edo lanbide prestakuntzako ikasleei zuzenduta (1984-I-1etik 1993-XII-31ra bitartean jaiotakoak). Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

farmaziak

27, barixakua

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

28, zapatua

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

29, domeka

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

30, astelehena

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

1, martitzena

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

2, eguaztena

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

3, eguena

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

4, barixakua

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.50 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.30, 18.30 eta 20.50. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.50, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapateria: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapateria: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapateria: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.50. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdire). Zapateria-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdire. Zapateria-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.54. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Ipuruan 2. pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde, komun bi eta ganbara. Berriztuta, bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua. 225.000 euro. Tel. 679-332949.

– Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde eta komun. Berriztuta. 26.000.000 pta. Tel. 659-687736.

– Txaltxa-Zelai ondoan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde, komun eta ganbara. Bizitzera sartzeko moduan. Kalefakzioa. Tel. 675-700864.

– Zaldibarren pisua salgai. 90 m². Sartzeko moduan. 24.000.000 pezeta. Tel. 946-820458 edo etxeasal@live.com

1.2. Errentan

– Buhardila alokagai. Deitu 22.30etatik aurrera. Tel. 634-453097.

– Romualdo Galdos kalearen inguruan pisua alokagai. Jantzita. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 616-490196.

– Eibarren edo inguruan logela edo buhardila hartuko nuke alokairuan. Tel. 666-784526.

– Eibarren pisua hartuko nuke alokagai. Tel. 646-662911. Felicia.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Alokagai

– Egiguntarrenean garaje itxia alokagai. Tel. 678-426136.

– Elgetan lokal itxia alokagai. Autokarabanak gordetzeko. Lapurreta eta suteen aurkako sistemarekin. 116 euro hilean. Tel. 670-755644.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Mutila eskaintzen da asteburuetan kamarero moduan lan egiteko. Tel. 658-719676. Enrike.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo externa. Esperientzia. Tel. 616-397348 edo 626-670510.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-482478.

– Mutila eskaintzen da banatzaile edo sukaldari laguntzaile moduan. Tel. 638-344377.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabal. Tel. 630-531469.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 655-077394.

– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Interna edo externa. Tel. 664-881835.

– Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 669-966611.

– Mutila eskaintzen da elektrizista (2. mailako ofiziala), igeltsero laguntzaile edo pintore moduan lan egiteko. Tel. 606-612834.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 651-836353.

– Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 634-661438.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 943-530517 edo 645-366850.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 662-423898.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 636-302237.

– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 686-435056.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Erreferentziak. Tel. 686-420642.

– Emakumea eskaintzen da orduka etxean edo ospitalean nagusiak zaintzeko. Tel. 654-837227.

– Emakumea eskaintzen da orduka etxean edo ospitalean nagusiak zaintzeko. Geriatria kurtsoa eginda. Tel. 669-311385 edo 646-235195.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 656-493864.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. 675-421933.

– Emakumea eskaintzen da arratsalde eta asteburuetan kamarera moduan. Tel. 671-972733.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-154754.

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-786976.

– Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. Tel. 627-163603. Vania.

– Emakumea eskaintzen da arratsalde eta gauz nagusiak zaintzeko. Tel. 672-076852.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 626-329979. Lourdes.

– Mutila eskaintzen da autonomo moduan edo kontratuarekin orduka lan egiteko: garbiketak edo banaketak egiteko autoarekin. Tel. 605-800582. Alex.

– Neska eskaintzen da 15.00etatik aurrera edozein lanetarako. Tel. 691-532893. Lizett.

– Neska eskaintzen arratsalde umeak zaindu edo kamarera lanetarako. Tel. 697-939085.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 943-171583 edo 608-474923.

– Emakumea eskaintzen da goizez garbiketa lanetarako. Tel. 625-048037 edo 680-223378.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 662-273295.

– Neska eskaintzen da arratsalde edo asteburuetan edozein lanetarako. Tel. 646-821678.

– Neska eskaintzen da astero bi egunetan orduka lan egiteko: nagusiak zaindu edo garbiketa lanak. Tel. 679-878676.

4.2. Langile bila

– Aerobic-eko klaseak emateko irakaslea behar da Ugan Klubean. Tel. 943-820452. ugan.klub@euskalnet.net

– Eibarko jatetxe batek neska behar du, 13.00etatik 16.00etara. Tel. 943-207019.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Hiru plazatako sofa salgai. Narruzkoa. Egoera onean. Tel. 676-377959. M^a Jesus.

– Play-Station 1 salgai. Berri-berria eta prezio onean. 11 joko opari. Tel. 943-120030.

– Autorako umeen silla bi salgai. Maxi-Cosi, 18 kilora arte. 60 euro bakoitza. Tel. 629-946467.

– Marmolezko mahai biribil txikia, edarientzako karrotzua eta eskritorioa (0'82x0'60) salgai. Tel. 647-840027.

6.3. Galdu/Aurkitu

– 5 hilabeteko txakurra galdu da. Otsoa eta ratoneroaren nahasketa. Beltza, hanketan marroia eta zuria eta lepo zuria. Tel. 690-302761 edo Laurel & Hardy pu-bean.



**OSTEO
PATIA**

**KIRO
MASAJEA**

**REFLEXO
LOGIA**

**GEL
AZAZKALAK
LUZARO
RAKO
MANIKURA**

**AURPEGI
FOTOGAZ
TETZEA**

**LASER
DEPILA
ZIOA**

MASAJEAK

OSTEOPATIA (buzurrekoa, estrukturala, erraietakoa)
Kiromasajea / Teknika metamorfikoak
Masaje terapeutikoa / Reflexologia (ordubete)



**Tratamendu
lipo-erreduktorea**

BERRIA

BONOA

5 saioekin
30 minutuko masajea
edo erreflexologia
OPARI

5 saio **150 euro** **30 saio bat** **30 euro**

BEGIBISTAKO EMAITZEKIN
LEHENENGO SAIOTIK

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

Zimurrak (Botox).
Mantxak.
Barizeak-Couperosis.
Azido hialuronikoa.
Bitaminak.

Laser depilazioa

ezpainak	10 €
besapeak	50 €
izterondoak + besapeak	100 €
erdiak	120 €
erdiak + izterondoak	160 €
osoak	200 €
osoak + izterondoak	250 €
besoak	120 €
bizkarra	120 €

CAPI

%10eko deskontua
perfumeria eta kosmetikan

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

09.00-13.00 / 14.30-20.00 Zapatuetan: 09.00-13.00

Irailetik aurrera 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak




**ZEZEN
BIDE**




**AUTO
ESKOLA**

GIDA-BAIMENAK




San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



IZANE

dekorazioa

TORIBIO ETXEBARRIA, 17
TELF: 943 203868



Abenduan
%10eko
deskontua
Gabonetako
artikuluetan


IZANE

Toribio Etxebarria, 21
Tel. 943 20 75 33

dirdac
bitxitegia



Finantziario
formulak
galdetu



⌘
OROLOGIERIA BOSTON



Diva

Marc Bache

CPS sport

GUESS

ARMAND BASI

TW STEEL

ANTONIO MIRO

RELOJES

ALFEX

TIEMPO

D&G

TIEMPO

OLYMPIA